



BALENDIN ENBEITA

NERE APURRA

NERE APURRĀ

COLECCION AUSPOA

**Plaza de Santa María, 2 — Teléfono 66 16 12 — Tolosa
(Guipúzcoa)**

Balendin Enbeita

NERE APURRĀ

AUSPOA LIBURUTEGIA

1974

© Auspoa Liburutegia - Tolosa (Guipúzcoa)
Inprimatzalle: IZARRA - Polígono 36 - Usúrbil (Guip.)
Depósito Legal: 33/74
I. S. B. N.: 00352
Enero - 1974

A R K I B I D E A

ITZAURREA	11
OARRA	23
Ariatza'ko Kurutz deunaren jaiak	25
Gabon-gaba	30
Enbeita aita eta semia	32
Karnabal-egunez	33
Tabernatikan etxera	34
Pipas eta Enbeita Balendin	35
Eguzki, argi laguntzaillia	36
Aloiña mendi gañian	39
Uzparitxa, neure jaiotza-lekua	42
Arratia'ko basurdia	45
Uzparitxa mendi gañetik begira nere baserriari	49
Alperra eta fiña	52
Uda azkena	54
Arraitia'ko mixiñoiak dirala-ta	57
Gabon-abestiak	59
Muxika-Ormaetxe'ko txakoliña	62
Maitasuna zer da?	63
Uzparitxa mendiko kurutza	65
Muxika-tik Ipar-Amerika'ra	66
Ariatza'ko Garriko'ri	69
Oiz'ko belea Oiz'era	71
Neska-mutillak eta zarra	73
Gabaz ameslari	76
Agur, Mirentxu!	79

Arantzazu'ko aitona dala-ta	82
Modan balego, zorioneko litzake euskera	86
Zorion billa	89
Arantzazu'ko euskaltzaleen biltzarrean abestuta- tako bertsoak	90
Baserri-sukaldea	96
Bertsolari baten eriotza	98
Baserria	100
Arrantzaleak, Dakarrera jua diranak	101
Astoa eta errotaria	102
Maitasun garbia	104
Mutilzar bateri	107
<i>Goiz-Argi</i> , ongi etorri	109
Edurra eta zozoaren autua Txepetxak erabagi ...	112
Bizkaiko gure mendiak	114
Bertsolaria zelan egin	116
Kukua eta txindorraren autua txepetxak era- bagi	118
Maitasunaren azkena	121
Zesterua	123
Txepetxa	125
Agur, Ariatza!	127
Aita Martin (G. B.)	128
Gora euskera!	130
Joanes artzaiñaren siñismena	131
Kirsti Liikanen	134
Neure baserriko bizitza	138
Orixe jauna (G. B.)	141
Arteaga'tar Ijinio dala-ta	144
Arrantzalea	149
Jesusen eriotza	151
Uztapide, txapeldun	153
Juan oge ta irugarrena il da!	156
Soloeta'tar Ilario jauna omen-jaian	158
Al dala argiz ibilli!	160
Adan eta Eba sagarra jan da gero	164

Aundikeriak ondoren onik ez	167
Azeriarep kontuak	170
Mingañezkuak ez dau balio, biotzak maite ez badau	172
Ezkondutia ona ete da?	174
Ariatza'ri	176
Joseba Deunari eskatzen	177
Ameriketara diru billa joateko amesean dagoan semia eta ama	180
Ama	183
Senar-emaztiak autuan	185
Bake osorik ez	188
Euskera gatxa dala ikasteko	190
Caua	191
Eskuak utsik	193
Leketio eta Azkue jauna	194
Sortzez Garbiko Amari	195
Australia'ra juan ziran gazteai	198
Marti-zozo kantaria	200
Uriko aguazilla ta txoferra	202
Arrate ixilik	205
Orban bako lore	207
Sorgiña eta mutil sendua	209
Baserri uts gaxoari	212
Imanol anai gaztienari, Benezuela'n amasei urte egñari	214
Lengo bizitza eta gaurkua	217
Gaurko neskatzak	220
Txistularia	222
Itxaropena bearreko dau gizonak bizi izateko ...	224
Udaberria, ongi etorria!	226
Arrospide osalaria zanari	227
Iyurreta'n	229
Bizitza barri	230
Gazte-denbora ez da etorriko	232
Garai'ko dantzariari	234
Kontzientzi ustela	236

Zar-gazteak	238
Dirua, danon errege	240
Baserritarrak kejaz	243
Maite mindua	245
Ama euskera	247
Eskubide bardiña	249
Xabier'eko Prantzisko Deuna	251
Gabonak dirala-ta	253
Igor il zaneakoak	256
Egiñak egin eta or konpon!	258
Ezkontza	260
Arro aundia eta arro apala	262
Amari biotzez	264

ITZAURREA

Omenaldiak egitea gaurko oitura degu-ta, betor ordu onean Balentin Enbeita'ri aurten egingo zaiona ere. Ez du, egiaz, iñork esango merezi ez duenik. Aspaldi batetik ibillia bait degu bertsolari, ez makala, gure erririk geienetan.

Nekazari lanetan bezain errimea da, izan ere, bertso bigun sakonak naiz plaza agirian, naiz taberna zuloan, naiz eleizan biribildu ta otoz-otoan kantatzen. Aatik, ondo irabaziak ditu guztion txalorik gartsuenak.

Enbeita'tarrak, dudarik gabe, aintziñatik dute bertsolari jatorria —*dinastia* esan bear ei degu gaur—. Denok ezagutzen degu Balentin'en aita, Kepa Enbeita, Muxika'koa ez-ezik Euskalerra osoko Urretxin-dorra, eta onen anai Imanol, eta bere anai-arreba ta seme-alabak. Sendi osoa bertsolari...

Doai ta nortasun aundiz indartuta daukagu Balentin, bertsoak asmatu-ala botatzeko erreztasun izugarria duena. Beronek diosku, olerkitxo baten, nolakoa izan bear duen bertsolariak. Ona:

Bertsolariak, ona izateko,
baldintz onek bear ditu:
buru argia, biotz zabala,
nai badau ondo jarraitu;
irugarrena, eztarria ona,
neurriai ondo begitu;
bertsolaria ona izango da
baldintza onek baditu.

Benetako gizon izanik agertu oi da nor-tasuna. Ta bertsolariak goi-goi ikusi gura badau bere izena, nun-nai ta beti agertu beza bere gizontasuna. Bertso lizunez etzuen loitu nai izan egundo ere gure izkuntzaren ederra.

Oba da etxian ixillik egon
garbi-zalia ez dana,

dio azkenez. Aitor zarraren euskera, gure mintzoa, indar-azi, zabaldu ta erriaren arnasa gaztez oretu nai digu. Ta, berri diot, onakoak merezi du omenaldi biozkorra. Amaikaxori eskeintzen zaio ainbesteko errazoi gaberikan.

Gure zer ederra: bertsolaritza.—Gaur —nork ez?— kultura itza darabilgu atertu barik mingaiñean. Ba ote dakigu sarri zer adierazi nai degun latindar itz orrekin? Gizonak bere nortasuna, gorputz eta ari-ma, osatzeko bear duen ezagutza, jakite betea dezu kultura; onetxek osotu bear du gizona. Kulturak laguntzen digu, bai, geu-

re bear-izan guztiak egokiro bete ta asetzen.

Eta kultura edo geure buruaren lantze au izkuntzaren bitartez lortu oi degu geienik. Guk euskeraren bidez, euskaldunak noizbait —millaka urte asko dirala— asmatu zuen izkera ederrez.

Orrezkero, euskeraren agerpenik lenengoena, arte bezela, bertsolaritza degunik ezin daikegu uka. Umetatik ikasi du gizonak biotzak ematen diona eztarriaz kantatzen. Txoriak berez du abesten; bertsolaria ere berdin pentsa ta kanta ari da barnean duena argi ta zoli adierazten, au da, bertso gartsuak arilkatzen.

Oitura ta trebetasun auek geure-geureak ditugu, beste erri-aldeak ez dituztenak. Bere tankera berezia du gure bertsolariak, ez kanpotik artu duen kulturagatik gero, itz-zerrenda asmatu-ala barrutik ir tetzen zaiolako baiño. Geure izpiritu zarraren agerpena degu orixe, J. Oteiza'k dioskunez.

Eta, ain zuzen ere, au idazten ari naitzela eskuratzen didate *Zeruko Argia*; ta ona zer dion gai oneri buruz eibartar idazle leun Imanol Laspiur'ek: «Hamaika aldiz irakurri ohi dugu Euskalerriko erdal egunerokoetan euskal historiari buruz, edo etnografiari, edo psikologiari, edo euskarari eta euskal izateari berari buruzko iritzi ar-

galakin eta euskaldunen orijinaltasuna ken eta beste talde etniku batetan sartuko gintuzkete pozik. Batzuek min edo dute, nonbait, horiek nahi luketen hainbat menderatu ez gintuztelako erromatarrak» (*Zeruko Argia*, 1973, urriak 28, 1 orr.).

Nik askotan esan det, baita idatzi ere, arlo onetan ari izan diran kanpoko ta etxe-koak uste duten aiña ez digula latiñak prestatu. Euskalarien bitxikeriak ontan irribarrea erne oi digute ezpan-ertzetan. Entzun berriz ere Laspiur'i: «Euskara hizkuntza bera —dio— uste baino gehiago latin kutsuz jantzia dugula aldarrikatzen dute, eta musika hau edo bestea ez dakit nori eta zeini hartua dela, eta berdin zenbait dantza ta joku... Ez genuke arin bukatuko. Horrela, zer gara, baina, euskaldunok?». Pelota jokua euskaldunona ez dala idatzi dutelako, dio au.

Bertsolariengatik ez dute oraindik beste ainbeste esan. Baiña botatzen asi ezkeroz... Dana dala, euskaldunok ba-ditugu, ta ez gutxi, geure izate bereziaren agerpen zoragarriak, eta bat, lenengoa bear bada, euskera ta onen gunetik sorturiko literatura ta abar. Bertsolaritza, ordea, gure literaturaren zatirik beiñena ta lenena degu, euskaldunak itz egiten ikasi zuenetik gaur arte bizirik iraun-azia.

Balentin Enbeita bertsolari.—Oar auek

osotzeko bizitz-zeaztasun batzuk eskatu nizkion B. Enbeita'ri. Ta ona berak erantzun zidana, oso osorik.

«1906'an jaio nintzan, «Usparitxa-Jauregi» baserrian, maiatzaren 20'an. Balendin Berriotxo beato egin eben eguna zan, eta orregatik ipiñi eusten Balendin izentzat.

12 urtekin asi nintzan bertsoan. Nere aititagaz egiten neban Ariatza'ko tabernan. *Txotxojeuri* (Juan Antonio Enbeita), nere aitita, oso bertsolari ona izan zan. Lenengo urten-aldiak aititagaz egin nebazan, aitagaz lotsatu egiten nintzalako. Amazortzi urte inguru nebazala asi nintzan aitagaz, Gabonetan eta olako jai batzuetan.

Nik ogeta iru urte nebazala, Bizkai'ko bertsolari sariketa bat antolatu eben Mungia'n. Neuri emon eusten lenengo saria. Bertsoarako gogo geiago ta biziago bat sortu jatan orduan. Urrengo urtean Getxo'n egin zan beste sariketa bat, eta emen ere lenengo saria emon eusten. Aurrerantzean plaza askotan ibilli nintzan nere aitagaz, batez be Bizkaian.

Ogetasei urtekin Bidasoz beste aldera joan nintzan, Basarri'rekin, Bizkai'ko *Euzko Gaztediak* eratutako bira batean. Donibane Garazi, Atarratze, Kanbo ta Donibane Lohitzun'en iru bat egin ginduzan, biok bertsolari giñala. Kanbo'ko trin-

ketian gure Mattin'en aititagaz egin genduan bertsoan. Ba-eban beragaz beste lagun bat be, oso bertsolari ona.

1933'an, Elizondo'ra atera nintzan nere aitagaz. Baita izan nintzan Bilbo'ko Arriaga kafean be. Ementxe egin genduan garai artako bertso-saiorik ederrena. Garai onetan, Espaiña'ko matxiñadara arte, erri-rik erri ibilli nintzan neure aita, Dima'ko Uriarte ta neure anai Sabin lagun izaten nituelarik. Matxiñada ori zala bide ixildu nintzan, 1958'garren urtean Bizkai'ko txapelketan barriro agertzeko. Kantatzeko erreztasuna bera be galdu egin neban.

Bizkaiko txapelketa nagusi bi irabazi dodaz. Lenengoa Bilbo'n, 1958'an, eta 3.000 pezeta ta kopa jaso nebazan. 1959'an barriro irabazi neban; Bilbo'ko Arenalian orain be, ta 3.000 pezeta, kopa ta txapela emon eustezan. 1960'an Mugartegi'k irabazi eban; 1961'an, Azpillaga'k, eta 1962'an Lopategi'k. Geiago ez da Bizkaian txapelketarik egin.

1959'an, Ariatza'n, *Fuenterrabia* tabernan, bertsolarien eskola bat sortu nuan. Arrezkero bertsolari onak, eta ugarri, emon ditu eskola onek: Jon Lopategi, neure seme Abel eta Jon, Deunoro Sardui, Ireneo Ajuria, Pedro Ortuzar *Iturri*, J. M. Sardui, Basabe (Luno'koa au), eta abar. Pedro Mari Aldana'k jarten eusku-
zan bertsoarako gaiak; berau genduan

gure taldeko sekretarioa be. Pedro Mari bera be bertsolari dogu: ba-ditu ainbat eta ainbat bertso eder berak egiñak, idatzia.

Leendik ere ba-ziran bertsolariak Ariatza'n: nere aitita, aita, nere osaba Imanol eta Santiago, Antolin, Pedro... Baiña ez egoan onen utsunea betetako barririk. Lengo sustar orreri indar barria ezarri gurata asi nintzan, eta ez dot uste, alperrik saiatu nintzanik. Poz aundia da ori niretzat.

1953'an antzerki bat antolatu neban, *Jesus'en Bizitza* izenarekin. Teatro edo antzerki au inguruko erri txiki batzuetan egin genduan: Ariatza'n, Ibarruri'n, Mendata'n... Antzerki osoa da bertsoz egiña ta abestua. Eleiz-gizonak be ontzat artua izan zan, eta erriari aitzen emon eutsoen ez gelditzeko «gure» teatro au ikusi bariarik».

Au degu B. Enbeita'k aitortzen diguna, argi ta garbi aitortu ere. Koplarik asko argitara eman izan dizkigu Euskalerriko aldizkaririk geienetan. Beronen lanak irakurten dira: *Euzkadi* egunerokoan, *Jaungoiko Zale*, *Jesus'en Biotzaren Deya*, *Zeruko Argia*, *Arantzazu*, *Karmengo Amaren Egutegia*, *Anaitasuna*, *Arantzazu'ko Egutegia*, *Goiz-Argi*, *Karmel*, *Euskera*, *Olerti*, *Txistulari*, *Príncipe de Viana* aldiz-

karietan. Ez da geldirik egon, egundo, ez bertsolari lez, ez idazle bezela.

Ala ere, eztu iñoiz omenaldirik edo bein-bein beretzat berariz antolatutako egun apartekorik izan. Lagun arteko atsegin batzuk bai, ordea; 1968'an, San Migel egunez, txapel eder batekin saritu zuten Iurreta'ko gazteak; Muxika'n ere bai San Roman egunez, erriko bertsolarien gidari bezela. Ortik kanpo ere izan ditu apari batzuk, eta abar.

Zer kantatu duen.—Gai askori ikutu oi dio bertsolariak, baita B. Enbeita'k ere: ertz askotakoak dituzu onen neurtitzak. Geien erabilli ditun gaiak, orraitio, auek dira: baserriko bizitza, senar-emazteen maitasuna ta goraberak, neska-mutillak, erria, euskera, fedea...

Baserriko lanez bizi da bera, ta berezkoa du nekazaritza goraltzea. Goizean goiztik bera jaiki ordukoxe, kantari dauka txantxangorria etxe ondoko intxaur gainean, eta eguzkia dizdizka. Gosaldu ta lanera. Noizik bein senar-emazteak eta seme-alabak, bear ere baita, zarata batzuk alkarri egin arren, ondo artzen dute alkar. Bertsoan ere maiz ari dira, «sendiko bake gozotan». Bizimodu orrek irautea nai du bertsolariak. Onela dio:

Neure baserri kutuna,
aita ta amak emona,
nai dot zure iraupena.
Ondorengoak ez beie galdu
zuk dozun edertasuna,
oitura ta siñismena;
beti izan zentzunduna,
egiazko euskalduna.

Alperrik ez du nai ikusi baserri aldean;
onelakoa, bada, lanerako nagi, gizon ondo-
tik ibilten omen da, «aingeruak lez itz egin
baiña malizi baltza barrutik».

«Senar-emaztiak autuan» deritzanean,
emazteak senarra ikusten du arpegi illun.
Zergatik ote? Sendi askotan jazo oi dana
jazoten etxe artan ere: gaurko gazteai bu-
ruz aitak gauza bat nai ta amak beste bat
laga. Ori dala-ta senarrak erantzuten dio
poliki:

Gure jazketa eta oitura,
euskaldun jolas garbiak,
alde batera iztera doiaz
gaur eguneko gaztiak.
Amak alabai dana azketsi,
nai dabena egin bestiak,
ori dala-ta daukadaz neure
bekozko ta asarriak.

Neska-mutillak sarri dardartu ditu txi-
bita bizkorrez. Baita euren maitasun gar-
biak abestu ere. «Maitasun garbia» deri-

tzana, ederki eioa da. Mutillak zintzo dio-
tsa neskeari:

Maite bazaitut, maitatzen zaitut
nik beti maitasun garbiz,
sekulan bere ni ez naz bizi
loikerirako egarriz.

Lagunduteko gertu naukazu
bardin nai gabaz nai argiz,
etzara txarto bizi izango
nirekin beti bazabiz.

«Neska-mutillak eta zarra» ere alkar-
-izketa gozoan egiña da. Erlijio-auzian
gutziz Jainko-zale agertzen zaigu beti.
Ainbat kopla biozti eskeiñi dizkie Uzpa-
ritxa-mendiko gurutzeari, Karmen'go,
Arantzazu'ko Amari ta abar. Gizona zin-
tzo ikusi nai du bere barruko artu-ema-
netan. Gaur, alan ere, arrokeria, alkar
ikusi eziña, zapalkeria ta kezka estua dira
nagusi. Ontaz ez dago gaizki urrengo
aapaldi au:

Alperrik dira ezitasunak,
alperrik gure indarra,
kontzientzi ontan zerbait badago
ondo ausnartu bearra.
Geure egintzak dirala bide
jarri badogu negarra,
ori da geure barne ixillean
zirikatzen gaitun arra.

Euskerari, azkenez, biozkada bizi-bi-
ziak opatu dizkio. Kanpoko gauzai uko-

-egiñik, etxea zaintzea nai du; euskaldun iraun gura badegu, euskera jaso bear degu, geure izate osoa indartu ta zabalaziaz; euskera ikasi nai duenari, lagundu biotz onez; erbeste-zalerik baletor, bioa lengo bidetik:

Zorioneko gure izkuntza
ori egingo bagendu!

Izadia ere maite du, negua, uda ta uga-
goiena goretsiz. Eguzkiari ederki diotsa:

Argi eder ori, guri laguntzen
etzara iñoiz aspertzen,
goizian goiztik irri-barreka
pozkiro zara agertzen;
gizarte onek ez dautzun arren
eskar aundirik eskeintzen,
argi gozo oi, apal-apalki
beti zatoz zu laguntzen.

Berdin goraltzen ditu euria, zugatzak,
sua ta olakoak ere. «Bizkaiko gure men-
diak» deritzana, gizonki osotua daukazu.

Eder zaio au naiz ura aiputan jartea.
Sarri aitutzen ditu bere senitartekoak,
Ariatzako baserriak, Aloñako aitona, an-
go ta emengo mixiolari, txistulari ta ber-
tsolariak. Baditu alegi ta ipuiñak ere:
«Astoa eta Errotaria», «Edurra eta zozoa-
ren autua» eta gaiñerakoak.

Neurkera ez-berdiñak darabiltza, naiz-
-ta sarrien zortziko txikia ta nagusia.

Ederki moldatzen du aria, bulkoz ta esae-raz. Potorik ez dizu egingo, ezertara ere. Ta beti ari zaizu gauzak artista samur ta gozo bezela ikusi ta adieraziaz. Baliteke Bilintx baten sudur ta zorrotasunik ez izatea, baiña bai bertsolari azkarrari dagokion egiazko eder-sena. Bakoitzak izan, noski, norbere norberetasun berezia.

Ortaz, eraztuna atzera bezela datorkio egin nai zaion omenaldia, ta bidenabar *Auspoa*'k osotzen dion bertso-bilduma.

Aita Onaindia
(Larrea, 1973.XI.1)

OARRA

Balendin Enbeitaren bertso-bilduma au nola egin dan esan nai genduke.

Danok dakiguna, bertsolari au oso bertso-jartzalle ugaria izan da; alde ontatik ere bere aitaren antz aundikoa, beraz.

Orregatik, liburu ontan ezin jarri izan ditugu Balendiñen bertso guziak; au baño askoz liburu aundiagoa bear litzake, danak sartzekotan. Egokienak-edo aukeratu dira.

Aita Onaindia'k esan bezela, aldizkari geienetara bialdu izan ditu Balendiñek bere bertsoak. Oietatik ere artu degu noski, bañan geien-bat bere etxeko paperetatik.

Beraz, bertsoen atzetik aldizkariren baten izena-ta aitatzen diranean, badaki irakurleak bertsoak nundik artuak diran; bañan olakorik ezer adierazten ez danean, Balendiñen paperetatik jasoak dirala esan nai du.

Zer esanik ez, inprentara baño len, Balendiñek liburu ontarako ziran bertsoak aztertu nai izan ditu, ta an da emen ikutu bat edo beste ere egin die, bere gustora jartzearren.

Doñuak, danak Balendiñek kantatuak dira; ta guk magnetofonoz jaso eta Donostiko

Anbrosio Zatarain da Manuel Yaben jaunak solfeoz jarriak.

Doñu oietatik zenbait, bere aita zanarengandik eta Muxika aldeko lengo bertsolari zarrengandik omen ditu Balendiñek. Auek, danak jarri ditugu.

Beste zenbait, berriz, ara ta onera bertso-tara joanda-edo ikasiak omen ditu. Auetatik batzuk, oso arruntak eta ezagunak baitziran, alde batera utzi ditugu; bañan beste batzuei, naiz-ta ezagunak izan, Balendiñek kantatu bezela zerbait berririk baitzuten, pozik eman diegu leku liburu onetan.

A. Z.

ARIATZA'KO KURUTZ
DEUNAREN JAIK



- 1/ Ariatzako jaiek
Santa Kurtzietan,
Iraillan amalauan
urte guztietan;
naiz aberatsetan,
bardin txiroetan,
* jan-edanen paltarik
ez da etxietan,
naiz-ta eskas ibilli
beste egunetan.

2/ Ariatza da gure
tokirik gurena,
Ariatzarrok beti
maitatzen doguna;
 Santa Kurtz eguna
 barriz maitiena,
aztu barik goguan
beti daukoguna;
Ariatza da gutzat
munduan onena.

3/ Santa Kurtze bezperaz
asten dira jaiak,
orduan eiten dira
barrabaskeriak;
 zaragi aundiak
 gure gaztediak
jaietan edateko
daukaz ekarriak,
duban edan dagien
datozen guztiak.

4/ Bezperan batzen gara
eliza aurrera,
emetik juateko
Bixenten «labara»,
 guztiok batera
 ardaua edatera,
zuri eta baltzari
apuroa eitera;
ez dau iñok esaten:
«Nik etxuat gura!».

5/ Danak egiten dautse
ardauari tire,
eta bizkortzen ditu
gizon ta agure;
 gero asten dire
 jira eta bire,
gorputza astun baña
bizkor jarri gure;
ardaua ez dok, mutillak,
iturriko ure!

6/ Naiz-ta egon zutunik
egon eziñian,
asarrerik sekula
ez da gure artian;
 biaramonian
 sendo gorputzian;
naiz biamona euki
polite aldian,
edanaren kezkarik
ez da biotzian.

7/ Ariatzar gaztiak,
gitxi gora-bera,
ardauaz beti dauke
danentzat aukera;
 zagi ingurura
 ainbat batzen dira,
gaiñera lotsa barik
edan zenbat gura;
amaikak garbitzen iok
gaztien kontura!

8/ Goizean zuria ta
atsaldian baltza,
eten bako txurrutai
an ekiten dautsa;
 artzen dabe matsa,
 ezin dira altza,
gorputza kili-kolo,
aurpegia motza,
ez dabe falta izaten
kokoloen antza.

9/ Gaztien zaragiek
biotz ona dauko,
datorren guztientzat
borondate aundiko;
 baña entzun ondo
 eta aitu obeto:
ardaua ekarten da
neurritz edateko,
ez debalde dala-ta
mozkorra artzeko.

10/ Lenauko zarrak guri
erakutsi euskuen
zelan ibil biar dan
zaragi kontuen;
 ikasi genduen
 biar dan moduen:
egin daiguzan gauzak
al danik onduen,
urrengoak be euki
daien akorduen.

11/ Ariatzarrak beti
aldi guztietan
eurenak ein oi dabez
Santa Kurtz jaietan,
dantza aureskuetan,
naiz jan-edanetan;
gaur be nai daunak olgeu
olango gauzetan,
Ariatzara etorri
Santa Kurtzietan.

☆ ☆ ☆

(Jai osterako)

12/ Ariatzako jaiek
amaitu dira-ta,
gaztedi guztia dau
erdi tristetuta;
janak amaituta,
zagiak ustuta,
gitxi ardura barriz
balegoz pageuta!
Pazentzia artu biar
egingo dira-ta!

(1944, Irallaren 14'an)
(*Xarmengo Amaren Egutegia*, 1953)

GABON-GABA

- 1/ Jose Nazareteko,
Jerusalengo Miren,
ostatu billa dabiz
biak gaur Belenen.
«Ez dago ostaturik!»
dautsa erantzuten,
eta sartuten dira
estalpe zar baten,
txiro ta ezer gabe
Gabon izan arren.

- 2/ Txiro ta ixilik da
Belengo askatxoa,
ta bertan jaio biar
Jesus Jaungoikoa;
emon daiogun pozez
ostatu beroa,
geure biotz barruko
maitasun sutsua;
ordez emongo dausku
betiko zerua.

3/ Entzun Gabonetako
Jesusen bertsoak,
diralako Belendik
bidaldukoak;
neba, arreba, senide,
sendi-gurasoak,
Gabon eta Urte barri
zorionekoak,
danoi eskintzen dauskuz
Jesus umetxoak.

4/ Etzaitezte aspertu
nire bertsoakin,
diralako egiñak
maitasunarekin;
eurak diñoena ondo
ikasi ta egin,
Belen maite dagigun
gogo, biotz ta adin,
pozez bizi gaitezan
Sendi Deunarekin.

ENBEITA AITA ETA SEMIA

Semiak:

Emen daukazu semia, aita,
zorun-agurra ematen,
jakin dagizun nire biotzak
egiz zaitula maitatzen.
Zenbateraiño maite zaitudan
ez da erreza azaltzen,
semiak aiña maite banozu
ez dot geiago eskatzen.

Aitak:

Gaztetxu zagoz aitan biotzan
maitasuna ezautzeko,
zenbateraiño maite zaitudan
ez dozu errez jakingo.
Esakun zar bat esango deutsut
gogoan erabilteko:
eun sementzako dala aita bat,
seme bat ez aitantzako.

KARNABAL-EGUNEZ

(*Zeanuri'ko ardan-gelan, Karnabal-egunez, Atxerre eta Enbeita Balendin.*)

Atxerrek:

Arro samartxo agertu iaku
Enbeita gure errira,
maskara piskat jantzirik dator
gaur Karnabal dan antzera;
era orretan dabilzazanak
gizon leialak ez dira,
olantxe niri beti gustau iat
itz egitia arpeira.

Enbeitak:

Au da lotsari emon daustana
lagun artian gizonak,
emen ez dira danak izango
zuk legez itz dagienak;
neuk be arpeira esango dautzut
gaur entzun dagien danak:
maskararikan ez daula biar
zuk lango arpeia daukonak.

(1934)

(*Karmengo Amaren Egutegia, 1954*)

TABERNATIKAN ETXERA

Tretatxuk:

Gure Enbeita goizeti doia
tabernatikan etxera,
bildurrez diran bizar gitxiko
mutikoaren antzera.
Berandutxuau joanda ere
etxian egongo dira;
beti ez adi bizi bildurrez
andra-umiai begira.

Enbeitak:

Neure sendiaz jolastutia
beti iat atsegingarri,
maitasunezko jolas orretan
zoriontsua naz beti.
Jolas ortatik buruko miñik
iñoiz be ez iat etorri,
ardau-gizonak ez dira izaten
bake-bizitzen ongarri.

PIPAS ETA ENBEITA BALENDIN

Pipas'ek:

Oge ta iru urte daukodaz,
oraindik nago solteru,
eta gaiñera ezkonduko
gogorik ez iat berotu.
Orretarako aukera ederrak
gura danian ditugu;
gaur ere errez aberatsenaz
eingo nintzake ezkondu.

Enbeitak:

Gazte zoruak uren gaiñeko
bitsetan oi dabe ames:
neskatxa eder eta aberatsaz
ezkonduko dirala errez.
Olangoari jazoten iake
arro-putz askori legez:
etxondokoa iñok eroan
eta kanpoan topau ez.

EGUZKI, ARGI LAGUNTZAILLIA



- 1/ Eguzki, argi gozo biguna
bazatoz neure leiora,
nagi bagarik goizian goiztik
egun onak emotera,
pozez beterik jarten nozula
zeu ikusiaz batera;
eskarrik asko eta egun on,
etorri zaitetz aurrera!

2/ Gau illunari bultz eraginda
bazatoz, argi gozoa,
egunsentiko zure dizdiraz
argitzen neure txokoa;
mendi ta zelai, uri, baserri,
errekak eta itxasoak,
argi gozotan jarten dozula
pozez gizadi osoa.

3/ Gau illunian itunik ziran
zugazti, baso, zelaiak,
aurpegi alaiz irri-barreka
jarri dauz zure argiak;
eta pozezko abestietan
txiroliroka txoriak,
«Ongi etorri, argi gozoa!»
diñoelarik guztiak.

4/ Ludi ontako izaki danak
zuk alikatzen dituzu,
laño illunez estalduriko
ortze oztiña argitu;
lurbira danai bizitza emon,
itxas-orruak baretu,
gogo itunak poztuta jarri
eta gaxoak osatu.

5/ Argi eder oi, guri laguntzen
etzara iñoiz aspertzen,
goizian goiztik irri-barreka
pozkiro zara agertzen;
gizarte onek ez dautzun arren
eskar aundirik eskeintzen,
argi gozo oi, apal-apalki
beti zatoz zu laguntzen.

6/ Gaurko munduan apaltasuna
ia dakusta galdurik,
alkar-maitasun zoriontsua
gorroto-soiñez jantzirik;
eguzkiaren argia bage
ezek ez daun lez bizirik,
alkar-maitasun barik be ez dau
munduan iñoiz bakerik.

(Karmengo Amaren Egutegia, 1951)

ALOIÑA MENDI GAIÑIAN



- 1/ Aloiña mendi gaiñian nago
begira egal danari:
artaldetxuak agiri dira
bedar gozoan urduri,
txoriak ere bake ederrian
guztiak dabiz kantari,
Arantzazuko Ama dabela
guzti-guztien zaindari,
mendi onixek egiz benetan
zeru txiki bat dirudi.

- 2/ Mendi gaiñik-gain miruak egan,
kukuak kuku basoan,
eztigai billa ara ta ona
erliak lora gozoan;
pagodeietan usuak urru,
eperrak landa soloan,
artzaiak txistu, ardiak beka,
danak dauz kanta-soiñuan,
mendi onetan aurkitutzen naz
zorioneko lekuan.
- 3/ Mendi onixek oñian dauka
eleiza eder bat baketsu,
bere inguruak zeruko argiz
jantzirik daukaz loratsu;
gizaldietan emon izan dauz
ainbat eliztar jakintsu,
lurbira ziar zabaldu be bai
Kristoren egi mamintsu,
mundu guztiak gaur goratzen dau
Euskalerriko Arantzazu.
- 4/ Kantabriako egal danetan
goratuenetaikoa
beti izan da Arantzazuko
Amaren eleizatxoa;
toki alaitsu baketsua da,
dirudi berak zerua,
gure erriai ainbat mesede
bidalduko txokoa,
Euskalerriak maite dau beraz
Ama Arantzazukoa.

5/ Arantza artean irri-barreka
or Ama Arantzazuko,
geure bizitza zelan eruan
munduan erakusteko;
arantzak emen maite dauzana
gero da zorioneko,
emon eiguzu indarra, Ama,
arantzak eruateko,
or goian gero lora artian
Zeugaz bizi izateko.

(*Aranzazu*, 1952, VIII-IX)

UZPARITXA, NEURE JAIOTZA-LEKUA



- 1/ Uzparitxako auzonetxua,
neure jaiotza-lekua,
amaika aldiz zure altzuan
egin dot amets gozua;
geruago ta geiau maite dot
neu jaio nintzan txokua,
maiteko ez banu izango nintza
zentzunik bako zorua.

2/ Aingerutxua jaio nintzan da
seaskatxuan eroso,
neure amatxuk ugatza edaten
altzora egin arte jaso;
neure gilborra asetu arte
ugatza emonaz ganoso,
barriro ere seaskatxura
egin dagidan lo gozo.

3/ Amen ezpanak esan leikezan
itz gozoenak neretzat,
jateko gozo bigun eztia
geienak aurtxoarentzat;
beso artian laztan ta txera
maitasun ezaugarritzat,
eta aurtxoan irri barria
ai ze pozgarri amentzat!

4/ Landaratxua jua oi dan lez
apurka aundi izaten,
neu be alantxe ogei urtera
igarri bage eldu nintzen;
gaztetasunak bultz eraginda
etxetik nintzan urruntzen,
au ta guzti be aita ta amak
bardin ninduen maitatzen.

5/ Urtia juan, urtia etorri
neure zentzuna betiaz,
geruau geiau gogoratzen naz
neure baserri politaz;
gazte aldiko zorun-bizitza
eta jolasak an dodaz,
au dala bide ezin naz aztu
neure jaiotza-lekuaz.

6/ Ainbesteraño maite ninduen
neure ama eta aita,
ainbeste jolas pozezko ein neban
neure baserri polita,
nire biotzak itxiko ete dauz
baztertu edo aztuta?
Ez, lur onetan jarten ez baiat
neure zentzuna galduta!

(Kamengo Amaren Egutegia, 1953)

ARRATIA'KO BASURDIA

(Doñua: Bilintxen Juana Bixenta Olabe'ren antzera)



- 1/ Arratiako erri batian
jazorikua da aurtengo urtian:
txarri bat artu eben azteko,
urte guztiko koipetarako;
ederra ei zan,
cxarri ederrik iñun an bazan,
esango'tzuet zelangua zan.

- 2/ Gorbean euken txarria artuta,
basurdia ei zan beraren aita;
txarri polita bera benetan,
oso bizkorra gauza danetan;
bera zaintzeko
etxeko danak etziran naiko,
kortako atia edei ezkeru.
- 3/ Au ta guzti be esaten eben:
«Txarri onegaz gauz beti pozarren;
naiz-ta basorde-kumia izan,
txarria aziko da gurian;
badau artoa,
gari, garagar, baba, pentzua,
ez al dira, ba, onek naikua?»
- 4/ Eldu zan, bada, bere sasoia,
ill biar ebena urte-txarria.
Muxikatikan iru morrosko;
juan zirian orretarako
danak bildurrez,
zer jazoko ete zan ardurez,
zauritu ezkagizan agiñez.
- 5/ Ixil-ixillik jarri giñian
txarria egoan kortako atian;
karnazerua bere gantxoaz
eta ugazaba arto naikuaz,
iñozentzian,
oratuteko bere tokian,
baña amesak utsak zirian.

- 6/ Laster asi zan kirrin-kurrunka,
kortako bazter danetan saltoka;
karnazerua bildur-ikaraz
eta ugazaba makilliagaz;
 etxeko andria
eskuetan ebala baldia,
onek zainduten eban atia.
- 7/ Etxeko jaunak esaten eban:
«Neuk elduko deusat buztenetikan,
eta zu bizkor egon gantxoaz,
eta bestiak gero eskuekaz!»
 Baña nok eldu?
Ez gantxo, ez buztan eta ez esku,
ezin genduan geure eskuratu.
- 8/ Alako baten oratu geuntsan
eta ill genduan ill biar bazan.
A zuan gero ikustekoa
jaurti ebana odol-pilloa
 murtzillarentzat!
Esaten eben: «Naiko guretzat!»
Ez dakit sobrau bazan bestentzat.
- 9/ Entzuten gendun uste ebela
amar bat arroba egingo zala.
Gero bost eta iru kiloan
gelditu zuan justo-justoan,
 etxeko pentzu
geienak zituala amaitu.
Zenbat eingo zan jan ez balitu?

10/ Urte guztiko lukainka-ametsak,
orduan amaitu zirian danak.
Txarri-bodara barriz askotxu
eta txarriak pixu gitxitxu.
Txarri-gauzarik,
baldin ilten ez badau besterik,
etzan geratu gauza askorik.

11/ Baña ugazaba ez da mankua,
tratu barria ein dau sekulekua:
erosi eban asto gaztia,
ogei bat urte ondo betia,
giarratsua,
lukainkarako aukerakua,
ez dok makala ein daun tratua!

12/ Ai, baña zer da nagona esaten?
Uste dot nagola oker itz eiten!
Etxeko jauna gauza on zalia,
beti euki dau ortan famia;
eta nok oni,
ain ago fiñeko gizon orri,
lukainkan egin asto zar ori?

13/ Etxeko jauna mindu ez daiten
enoa larregirik luzatuten;
ez dogu gura asarratzerik,
baizikan bizi maite-maiterik;
oldoztu ondo,
txarri obia urrengorako
San Antonioi eskatuteko.

(*Karmengo Amaren Egutegia*, 1954)

UZPARITXA MENDI GAÑETIK
BEGIRA NERE BASERRIARI

- 1/ Ni baldin banintzake
sendo ta aberats,
beti igongo neuke
mendietan gorantz,
neke-bildurrik gabe
egon arren aldatz,
andixik ikusteko
baso, zelai, baratz.

- 2/ Baserri txuri polit
baketsu otzanak,
solo, landa, sagardi,
zugazti lerdanak,
txorien txorrotxio
alai gozoenak,
menditik begituta
dira ederrenak.

- 3/ Mendipe baten dago
Uzpitxa-Jauregi,
nere txikitxutako
jolasen lantegi;
pozik egingo neukez
idazten urte bi,
zenbat maite zaitudan
azaldu banegi.

- 4/ Zure atzeko mendi
goiko tontorretan
azke jolasten neban
mutil koskorretan;
amak dei egin arte
beti jolasetan,
gomuta asko gabe
munduko gauzetan.
- 5/ Mendi arteko neure
Uzpitxa-Jauregi,
lengo jolas-lekua,
gaur amesen kabi;
eneban ezaututen
gaztien mintegi,
bai barriz mutil koskor
bigurtu banegi.
- 6/ Lora bage fruturik
ez da zugatzetan,
iñor ez da zentzundun
mutil koskorretan;
gizona beti dabil
ames aundietan,
baña zorioneko
amagaz umetan.

7/ Umetzaroa barriz
ez dot ikusiko,
maite ninduen ama
gaur be dot gogoko;
mutil koskorretan lez
ez dot jolastuko,
Uzparitxa ez daukat
aztuta uzteko.

8/ Alde egiñagaitik
gure gurasoak,
emen lotuko dira
mendi ta basoak;
baserri eta zelai,
sagardi, soloak,
euskaldun zaindu bediz
Aita Jaungoikoak.

ALPERRA ETA FIÑA

(Doñua: Peru Duako'rena)



1/ Lagun ez diran izakera bi
daukaguz emen munduan:
bata da fiña, bestia alperra,
beti alkarraz autuan.
Egi aundi au euki dagigun
aztu bagarik goguan:
alperra ez dala txarto izango
fiñak dabizen lekuan.

2/ Alperra beti atxaki billa
nundik lanai iges eingo,
ta fiña barriz bizkor lanera
nun ogia irabaziko.
Janagaz baño bere lanagaz
gogoratzen da geiago,
alperra barriz mairako gertu
nok jaten emon balego.

3/ Alperra sarri ibiliko da
gizon zintzoen ondotik,
aingeruak lez itz egin baña
malizi baltza barrutik;
zintzoa barriz lanera doia
sendiaren onagaitik,
baña alperrak lasai jango dau
langillearen lepotik.

4/ Lege txiki bat jarriko neuke
guztion onuragarri:
lege au da, ba, janik ez emon
lanik gura ez dabenari;
era onetan ainbeste alper
ez genduke eingo ikusi,
eta danontzat izango geunke
naikua arto ta ogi.

5/ Alperkeria dogu munduan
gose guztien sustraia,
lan egitetik iatorku barriz
zoriona ta ogia.
Alde batera itxi dagigun
betiko alperkeria,
gura badogu alkar arteko
zoriona ta bakia.

UDA AZKENA

1/ Zugazti baten azpian nago
oldozmenetan jarririk,
orri igarrak goitikan datoz
euren orpoa ausirik;
udabarrian jantzi txairoaz
ziranak, erdi billozik,
ainbeste zugatz ikusten ditut
or emen jantzi bagarik.

2/ Ego aldeko aize epelak
bere irrintzi ta orruaz
zugatz guztien orri igarrak
lurrera jaurti daruaz;
eta lur onek artutzen ditu
«Neuriak zare!» oiuz,
udako jazki apain guztiak
lur bigurtzera or duaz.

3/ Erreka-muño guztiak ziran
lora txukunez beterik,
errekaxua lora artian
euren orpoa bustirik;
uda azkena eldu da eta
ez da ikusten lorarik,
errekaxua lengo tokian
mur-murka doia bakarrik.

4/ Udabarrian abes-soiñuan
txoriak umiak azten,
mendi ta baso, zelai ta baratz
jantzirik ziran ikusten;
mitxeletiak lorarik lora,
kukua kuku abesten,
uda azkenak bana-banaka
guztiak ditu ixiltzen.

5/ Orri ta loraz apain zirian
zugazti, baso, zelaiak,
zoragarritzko abesti gozoz
poze jolasten txoriak,
ames zorotan jarten ginduzan
bai zarrak eta gaztiak...
Uda azkenak billoiztu eta
mututu ditu guztiak.

6/ Uda azkena izaten dogu
negu sarrerako atia,
udako gauzai elduten iake
eriotzako epia.
Krabelin gorri eta larrosak
ez dabe emongo ezta,
ez da entzungo birigarro ta
zozoaren abestia.

7/ Mendiak gorri, zugatzak billoiz,
txorien ixiltasuna,
zelai baratzak galdurik euren
udako edertasuna.
Negu bildurrez jarten dituna
aitona eta amona,
orixe dogu uda ondoren
iatorkun uda azkena.

8/ Gaztetasunak ez dau ikusten
ondorengo arriskurik,
lorak lez bere gorputza apaintzen,
ez dau beste ardurarik.
Uda azkena ixillik dator
aizto zorrotza arturik...
Zerbait giñanak ez gara izango
lur apurtxo bat besterik!

ARRATIA'KO MIXIÑOIAK DIRALA-TA

1/ Bedian asi ta Ubider'arte
amabost egun luzian
mixiolari onak ôn dira
arratiarren errian;
len be Arratin fede sendoko
Jainko-zaliak zirian,
ta ikustekoak egongo dira
mixiñoiaren ostian.

2/ Mixiñoietan artuten dira
sekuleko erabagiak,
esaten dogu: «Itxiko dodaz
pekaturako bidiak!»
Oldozmen onek ibiliko dauz
Arratiako erriak,
zorioneko litzakez danak
onek balirə egiak.

3/ Lapikotxua suen ondoan
pilpilka daguanian,
barruko gauza guztiak dabiz
gozoz egosi gurian;
baña otzitzen ixten baiako
nagiagaitik sasoian,
sustantzi bako jateko otza
seguru dago etxian.

4/ Gure arimen lapikotxua
otzik geratu ez daiten,
sarritan jua bearra dogu
geure utsak autortuten;
mixiñoietan egin dala-ta
naikotzat badogu ixten,
sustantzi bako katolikuen
antza dogu erakusten.

5/ Jakin dagigun itzak bakarrik
aixiak daruazala,
eta egipenak gizona nor dan
ondo erakusten dabela;
jarraitu daigun beti lenauko
euskaldun onak bezela,
esan dagien gaur be egizko
katolikuak garala.

(1956)

GABON-ABESTIAK

(Doñua: *Ardi txuriak*, Aita Mitxelena'ren
Ogei Kanta Arantzazu'ko liburuxkatik artua)



- 1/ Dan, dan, dan, Jose eta Maria
ostatu billa Belenen;
dan, dan, dan, gabeko amaiketan
dan, dan, dan, atia joten.
Eta barrutik dan, dan, asarrez
gogor dautse erantzuten:
«Dan, dan, dan gabeko amaiketan
dan, dan, zer dakazue emen?»

2/ «Dan, dan, dan, txiro ta eskale bi;
edegixue atia,
geugaz batera dakagulako
munduko Salbagillia!»
Eta barrutik gogor dirautse:
«Beterik dogu etxia!»
Ostatu barik geratzen dira
aita Jose ta Maria.

3/ Dan, dan, dan, gabeko amabiak,
Belengo kanpaien itza.
Aita San Josek Miren garbiai
arriturikan dirautsa:
«Entzuten dozu goitik datorren
aingeru-tronpeta-otsa?»
Une berian Miren garbiak
dauka Jesusen jaiotza.

4/ «Dan, dan, dan, aintza zeru goietan,
dan, dan, dan, bakia emen!»
Dan, dan, dan, aingeruak diñoie:
«Jesus jaio da Belenen!»
Artzaiñak ere pozagaz dabe
Jesus nun dagon itantzen.
Lenbailen danak joan nai dabe
Jesus Aurtxoa gurtutzen.

5/ Dan, dan, dan, pozez jo daigun, bada,
dan, dan, Belengo atia,
antxe barruan daukagulako
munduko Salbagillia.
Aita Jose ta Mariaz dago
zeru ta lurren Jaubia,
maitasun garbiz danoi eskintzen
zoriona ta bakia.

MUXIKA-ORMAETZE'KO
TXAKOLIÑA

Egarria ondo asetu eta
biotza pozkiro jarri,
ogi zuriaz gazigarria
piska bat dala janari;
ondo ibilli gura dabena,
bardin zar eta gaztedi,
Muxika-Ormetzen Enbeitak daukan
txakoliñera etorri.

(1950)

MAITASUNA ZER DA?

1/ Maitasun ori zelangoa dan
ta bere aunditasuna,
au jakiteko bearrezko da
goi-eskar argitasuna.
Bere zuztarra arakatzeko
ez da naikua gizona;
ez da aukeran bizi izatia,
ez diru, ez osasuna.
Zeñek azaldu, bear dan legez,
bere aberastasuna?
Ezegaz neurtu ezin leikena
benetan dan maitasuna.

2/ Neska-mutil bi jarriko ditut
gaur esate baterako:
egiz alkarraz maite badira
ez dirade bananduko;
alperrik jarri ibai, itxaso,
maite bion bitarteko,
bizi badira danen gañetik
zigur dira alkartuko.
Eta nik diñot: Maitasun orrek
bere indarra nun dauko?
Goi-eskarrezko indarra da ta
gizonak ez dau neurtuko.

3/ Gizonen ona ikustiarren,
ustu arte odoletan,
maitasun arren Kristo illa zan
kurutz batian Golgotan.
Esker txarreko gu izan arren
maitatzen gaitu benetan,
ezaugarritzat or dogu beti
deika Eukaristietan;
maitasun orrek daukan ixilla
ez da erreza topetan
oba izango da bakean itxi
Egillien eskuetan.

UZPARITXA MENDIKO KURUTZA

1/ Uzparitxako mendi gaiñian
zauzan Kristoren kurutza,
neke bagarik nator zugana
aundia ôn arren aldatza,
pozez beterik zuri eskintzen
neure zain eta biotza,
dakidalako zeu zariala
gure betiko bizitza.

Kurutzak:

2/ Neu naiz gizonen egizko artzaiñ
baketsu eta zuzena,
naigabetuak poztuko dauzan
biotz maitale onena;
niregan beti aurkituko'zu
zeuretzat biar dozuna,
zorioneko izan nai bozu
etorri zaitez neugana.

MUXIKA'TIK IPAR-AMERIKA'RA

- 1/ Ariatza'ko Puenterrabian
astera goiaz kantari,
bertso batzuek jarri gurian
Gergorio Barrueta'ri.
Amerikara juan da bera
agur egiñaz danori,
gura genduke Goiko Jainkoak
lagun daiola berari.

- 2/ Berrogei eta amabi urteko
udabarriko txorie,
Oka-Andorra beko errotan
jaioa eta azie.
Esan legike ez dala txarra
Barroeta'ren begie,
norantza egaz egin badaki
topetan urre gorrie.

- 3/ Len be lagunak badituz andik
juanak era orretan,
polito baten bizi diranak
Amerikako lurretan.
Juan ziñian ezketiño
asko dauz zure gomutan,
orrantza egaz egin gurian
urre gorrie topetan.

4/ Lengo batian artu genduan
zure idazki edo karta,
barruan zure argazki bat zan
zaldi ganian jarrita.
Ainbestek emen ikusi eben
euren eskuan artuta,
esaten eben: «Ez dok galduko
Gergorio Barroeta!».

5/ Lau mulo eta iru zaldigaz
artzain kanperu jarririk,
juan da laister jarri zaituez
galoi andiak jantzirik.
Era orretan jarraitzen badok,
ez dago esan biarrik
Ameriketan ez dala izango
laster i lango txoririk.

6/ Artxo, okela, lukainka, pernil,
ainbat olango gauzetan,
kafe ta puro, kopak nai beste,
ez abil, mutil, txantxetan.
Olango gauzak emen entzunda
asko dabiz amesetan,
diñuelarik: «Nor egon leiken
Barroetaren praketan!».

7/ Esaten eben: «Sasoi orretan
zertarako Amerikara?
Berrogei eta amabi urtegaz
beren ezurak iztera?»
Baña oragin ikusten danez
mutil ona iagok bera,
amaikatxuri barre eingo'tso
datorrenian etxera.

8/ Ia koplarik naikoa da ta
amaitutera nua ni,
anaiarentzat besarkada bat,
zuretzat milla gorantzi.
Gaurko antzera beti alai ta
osasunagaz ibilli,
eta onantza zatozenian
txanpon askogaz etorri.

(1947)

ARIATZA'KO GARRIKO'RI

1/ Txirotasunak ez dau
gizona beratzen,
ezta diruak ere
iñor goratzen;
egipenetan dira
gizonak ezautzen:
bertsoz eta abestiz
erriak poztutzen,
oiturak indartzen,
euskera zabaltzen,
aurrera jarraitzen
ez dana aspertzen,
Garriko lango gitxi
dira agertzen.

2/ Garriko egin iaku
entzute aundiko,
zuzendari onak dauz
orretarako:
Ajuria'tar Kepa
lendakaritzako,
Pedro Mari Aldana
gauzak atontzeko,
bertsoetarako,
naiz abestuteko;
noiz garan juango
asko deika dago;
zorionian sortu
gendun Garriko.

3/ Ariatzan sortu zan
Garrikon izena,
erri eta erbestek
aintzat daukena;
askoren pozgarri da
egiten daun lana,
anaitasuna dogu
berak nai dabena;
gauza ederrena
Ariatzarrena,
ikusten doguna:
danon batasuna;
orixe da Garrikok
gura leukena.

4/ Garrikoren deiari
ondo begiratu,
eta beren esanak
gogoan artu;
erri eta erbeste
euskaldun jokatu,
euskal oitura onak
ez inoiz baztertu;
gogoak askatu
ta biotzak poztu,
erriak berbiztu
inok nai baditu,
Ariatzako gure
Garrikoi deitu.

(1959)

OIZ'KO BELEA OIZ'ERA

Negu gorrian billoizik dagon
zugatzak nai dau Orrilla,
maitale batek bere maitea
ondoan egon dedilla.

Geuk be olantxe euki genduan
maite genduna biotzez,
baiña gugandik aldendu zan da
itxi genduzan tamalez.

Gugandik alde egin arren be
maitatzen dogu ondiño,
soiñez ez bada, gogoz benetan
geugaz dau Aita Gabiño.

Entzun dodanez Ameriketan
oituratuten ei doa;
izan leiteke egia baiña
nun ete dauka gogoa?

«Oiz'ko belea beti Oiz'era»
esakeriak diñon lez,
beste mendiak maite izango dauz,
baña Oiz langorikan ez.

Aita Gabin be pozik egon lei
Amerikako lurretan;
lurralde oso ederrak dira,
alan dau idazkietan.

Len be anaiak badoguz andik
joanak era orretan,
baiña geurea lango txokorik
ez dabe iñun topetan.

Emengo mendi, baso, zelaiak,
baserri, uri, baratzak,
berezko izate ederra daukan
oitura eta izkuntzak,
naiz-ta sarritan emen be aurkitu
loraren orde arantzak,
Oiz'ko beleak maite dauzan lez
Oiz mendiko arkaitzak,
bere erria ez dau aztuko
Aita Gabiñen biotzak.

NESKA-MUTILLAK ETA ZARRA

(MANU, MARITXU, TXOMIN)

Manuk:

—Nora zoiatz, Maritxu,
ain arro jantzita?

Maritxuk:

—Ziñera noia, Manu,
ederra ei dago-ta.

Manuk:

—Baña sasoi orretan,
ia gaba da-ta?

Maritxuk:

—Gaba izanagaitik
konponduten gara!

Manuk:

—Gurean ez daukogu
ortako baimenik,
eta gaiñera gabaz,
eskatzea alperrik!

Maritxuk:

—Nori ardura dautsa
gaba izanagaitik?
Orain ez dago, Manu,
atzoko konturik.

Manuk:

—Gabeko ibillerak
itxizuz, Maritxu,
eta egun argitan
garbiro jolastu.
Gabaz dabilzazanak,
goiz edo berandu,
alperrik galtzen dira
eta neskazartu.

Maritxuk:

—Zer diraustazu, Manu?
Zoratu al zara?
Egunez ez iatortzu
gaur iñor ondora.
Eta egunez bakarrik
ibilten bagara,
orduan bai neskazar
geratuko gara.

Manuk:

—Egun argitan dira
ardiak ezautzen,
gabaz danak bardiñak
iakuz iruditzen.
Gabeko tratuetan
bazara ibilten,
ez dozu errez izango
tratu ona egiten.

Txominek:

—Maritxu, nai badozu
zeure zoriona,
entzun egizu Manuk
esaten deutzuna.
Gura badozu artu
egizko laguna,
ez aukeratu, Mari,
gabaz iatortzuna.

GABAZ AMESLARI



- 1/ Ortze oztiña dizdizka dago
milla milloika izarrez,
mendi zelaiak ixil-ixilik
gauan itzalen bildurrez;
errekaxuan ura mur-murka
bere eresi itunez,
noizik noizera kanpaien ota
gaben orduak esanez.

2/ Ego zimelai dar-dar eraiñaz
zagu-zarrak egalari,
gabaz dabizen mitxeletiak
dituez euren janari;
gau-txoriaren oiartzun-otsa
gau itzalaren geigarri,
begi zorrotzez begira dabiz
nun aurkituko aparti.

3/ Barriro ere kanpaien otsa
iru durundin oiua,
ollotegian marti-ollarren
goizeko kukurrukua;
baserritxuan amona zarrak
egin dau lenengo loa,
ondoan daukan illobatxua
lo badau ikusten doa.

4/ Gaubeko orduen kanpaien otsak
ames dausku eragiten,
geure bizitzen egiñen asko
gogora dausku ekarten;
geure biotza sarritan kezka
egiñen damu autorten,
baten-bat bada geure ongi-naiaz
dauskuna zirikatuten.

5/ Zer darabizu gau itzal orrek
damu egiñak agertzen?
Ez al dakizu nere biotza
barriz dozuna zauritzen?
Egizko damuz len autortua
Jaunak ez dausku eskatzen,
yuadi ortik eta itxidak
bake deunian bizitzen!

6/ Goizeko bostak, egunsentia,
eliz-kanpaiaren otsa,
durundi onek pozez zoratzen
jarten dau nere biotza;
urruntzen doia nere barruko
gau-ames minkor zorrotza,
ordu onian eldu da nigan
goi-eskarrezko laguntza.

7/ Goi-argi orrek argi eidazu,
argitu nere zentzuna,
ez daidan galdu neure betiko
bizitzen itxaropena;
eriotzaren bildur naz beti,
nai dot betikotasuna,
betiko bizi nai dodalako
zeuretzat nire azkena.

(Karmel, 1957)

AGUR, MIRENTXU!

- 1/ Agur, Mirentxu, biotz erdiko
ene arreba kutuna,
sendi arteko bake ta poza,
maitasunaren laguna;
zu ziñan gure itxaropena,
txori kantari otzana,
baña ixildu zara betiko,
au tamalaren astuna!

- 2/ Zuzter bateko larrosak giñan
lurrian sortu giñandi,
baratza baten jantzi zirian
gure lorak eta orri;
beti alkarraz pozez beterik
bizi zirian lora bi,
azken epaiak banandu gaitu,
ene Mirentxu, zu ta ni...

- 3/ Benetan ziñan alaia, Miren,
txoria baizen bizkorra,
zure abotsa pozik entzunaz
deitzen eutsuen txindorra;
uda ta negu abesten zendun
naiz lorak eta edurra,
baña geiago ez dogu entzungo
zure abesti samurra.

- 4/ Urte bi ta erdi igaro dozuz
gaixo txar batek minduta,
egun beteko atsedeen barik,
gorputza miñez aulduta;
egin iatzuzan alegin danak
alperrikoak ziran ta
Josu on-onak eruan zaitu
bere eskutik artuta.
- 5/ Bizitzan oso apala ziñan,
Josu-maitale kutuna,
geidiarentzat beti zenduan
biotz zabal ta biguna;
ez-biarretan agertzen zendun
zintzoen eroapena,
zorioneko zeure antzera
bizi diranen azkena.
- 6/ Ireneotxu zeure semia,
Bedatxu alaba kutuna,
Kepa senarra bizi guztian
biotzez maite zenduna;
atsekabian izan dagien
biar dan eruapena,
or zeru goitik emaiozue
pozaren zatitxu bana.

7/ On-ona izan ziñialako
danontzat ludi onetan,
zeru goitik be lagundu, Miren,
geure esturaldietan;
zeure antzera bizi ondoren
bizitzako nekeetan,
or goian gero beti-betiko
danok alkartu gaitezana.

(1946)

ARANTZAZU'KO AITONA
DALA-TA

- 1/ Arantzazuko aitona zarra,
zer dala jazoten dana?
Gaztiak gogor artu zaituzte,
zer da, ba, egin dozuna?
Zeure urtien pixu astunak
neri ematen dit pena,
dakidalakoz zeure biotza
naibakoz jarri dutena.
- 2/ Gaurko gaztien jazkeren aurka
bertsoak dituzuz jarri,
ez al dakizu, aitona zarra,
ori dutela mingarri?
Uste onakin izan bazan be
egin zenduan lan ori,
ixil ôn diran txori guziak
jarri dituzuz kantari.
- 3/ Errezildarrak Zarautz erritik
artuten dizu pultsua,
txori oi ezta gero makala,
baki nun emon pausua;
makal samartxo dagona baki
aitona zarren lepua,
bildurrik barik erakutsi du
gogor jotzeko gogua.

- 4/ Zar eta gazte pekatariak
diño Zarauzko txoriak,
egia da ta ezin ukatu,
ez gera aingeru txuriak;
baña gizonak ez ditu berdin
izaten aldi guziak,
eta zarrari men egitian
irabazten du gaztiak.
- 5/ Jazkeran piskat apaindutzia
danoi atsegin zaiguna,
besten gauzetan ardura artzia
au ez da bide zuzena;
norberen gauzak zuzen eruan
au da Basarrik diñona,
gai ontan zuzen ez al dabil, ba,
Arantzazuko aitona?
- 6/ Esaten dizu gañera berriz
zortzi auzoak batzeko,
igande eta jai guzietan
jatordu on bat jateko,
asto-mantaren ardura oiek
alde batera uzteko;
au egiñagaz, aitona zarra,
ez dezu asko galduko.

- 7/ Basarrik baita esaten dizu
letrau bat balitz bezela:
uste izan arren jantziaren duin
gizona beti ez dala;
egikeretan ikusten dan lez
gizontasunezko ala,
brusan azpian ere jakin lei
pardillo asko dirala.
- 8/ Itzak bakarrik indarge dira,
egipenak ziñaldari,
nor zelako dan bere egipenak
erakusten dute argi;
mingañez uso txuria eta
egikeretan gau-txori,
alperrik esan: «Bildots ona naiz»,
otso gaiztoa da ori.
- 9/ Goialde eta Uranga ere
daude piska bat mindua,
txantxetakua ez degu izan
asto-mantaren tratua;
uste onian izan bada be
zarrenak nunbait errua,
baña berari ere eman die
buru-austerik naikua.

10/ Urte juanen pixu astuna
eta biotza penetan,
Arantzazuko gure aitona
ez da egongo txantxetan;
gaztiak zorrotz urten dizute
noski minduta benetan,
ez dezu errez, aitona zarra,
onen garaille urtetan.

11/ Gogor samartxo artzen bazaude
aupada egin daikezu,
pozez beterik lagunduteko
gerturik emen naukozu;
Muxika nere baserritxura
baldin etorri nai bozu,
zar eta gazte kezkarik bage
biziko gara ni ta zu. (1)

(1952)

(1) Arantzazuko aitonaren bertsoak, Basarri, Goialde eta Urangarenak, *Auspoa*'ren 52-53 zenbakian, 61'garren orri-aldetik aurrera.

MODAN BALEGO,
ZORIONEKO LITZAKE EUSKERA



- 1/ Euskalerriko mendi ta zelai,
erreka eta ibaiak,
euskeriaren babes gozoan
bizi zirian erriak,
gaur bazterturik ikusten doguz
bere oitura legiak,
jazokun orren errudun gara
euskaldun erdelzaliak.

2/ «Euskalduna naz!» entzun nai dogu
ta gañera arrokeriz,
esaten dogu: «Euskalduna naz
izkuntzaz eta jatorriz!»
Baña biotzez euskera itxita
erdera maitatzen gabiz,
olango euskaldun erdelzalia
obe zan jaio ez balitz.

3/ Euskaldunaren ama euskera da
eta ez dogu ezautzen,
edo ez dogu ezautu gura,
onela dogu autortzen;
Jainkoak diño bestenai itxi,
zeuria jarrai maitatzen,
eta gu gabiz ama itxita
ama-ordia goraltzen.

4/ Euskeriaren ondamendiko
arerio gogorrenak
ezbairik bage esan legike
diriala euskaldunak;
euraren ama baztertu daben
ama-ordiaren lagunak,
atzeritarren lizunkerizko
bizitza gura dabenak.

- 5/ Emakumia lurbira ziar
dabil modia begira,
nundi edo andi elduko iaku
modia dauan tokira;
jantziko iaku, naiz-ta nabarmen
izan, modien jazkera,
modan balego zorioneko
litzake gure euskera.
- 6/ Ez uste izan erdera ori
gura dogula zapaldu,
erdera bardin beste izkuntzak lez
ondo ikasi nai dogu;
baña euskera Euskalerrian
ez dagigula baztertu,
Euskalerririk ez dagolako
euskera galtzen badogu.
- 7/ Euskera maite, gaxorik zagoz
eta osakairik ez dozu,
zeure semiak itxi zaituez,
errukarria zara zu.
Ene, euskera, ilgo al zara?
Arren erantzun eidazu!
Zu il ezkerro ez dot nai bizi,
zeugaz eruan nagizu!

(1949)

ZORION BILLA .




1/ Gure bizitza itxaso bat da,
gu gabiz bere gaiñian,
zorion billa ara ta ona,
bata bestien atzian;
ur sakon orrek irusten gaitu
gitxien uste danian,
eta ez gara konturatuten
ondora jausi artian.

2/ Emen geienok bizi nai dogu,
al dala beintzat, gustora;
naiz oker eta zuzen ibilli
askoi ez dausku ardura;
oker-bidian doian untzia
jausi oi dan lez ondora,
zuzenekoa artu biarko
nai bogu eldu portura.

3/ Zorionaren entzute onek
danok pozik jartzen gaitu;
zetan esan bez, zorioneko
guztiak izan nai dogu;
zoriontsua gauza aundia da,
nai bogu beraz jaubetu:
lagun urkoa maite izan da
ona izaten jarraitu.

ARANTZAZU'KO EUSKALTZALEEN
BILTZARREAN
ABESTUTAKO BERTSOAK,

1956'EKO IRAILLAREN 16'EKO BAZKALONDOAN



1/ Nere gorputza dardarka daukat
eta biotza kantari,
niretzat beintzat gaur Arantzazuk
zeru txiki bat dirudi:
Bizkai, Gipuzko, Araba, Napar,
Zubero eta Lapurdi,
gour Arantzazun besarkaturik,
berba emonaz elkarri,
erabagia artuten dabe
laguntzeko euskerari,
Ama Arantzazu jartzen dabela
batzar onen ziñaldari,
Eskerrak emon bear deutsoguz
ai au egin dabenari,
indar berri bat eskatuagaz
Arantzazuko Amari.

2/ Arantzazuko Ama barreka
dago arantza gaiñetik,
olako batzar zoragarria
Arantzazun ikusirik.
Bere biotza gurekin dago
maitasun-garrez beterik;
euskera maite izan daigula
ez dau agintzen besterik.
Gaur egunian maitasun ori
ia dakusta galdurik,
zer jazoten dan itandu eta
ez dago erantzupenik;
danok eskuak garbitzen doguz,
iñok ez dauko errurik;

onexek dauka gure euskera
burua jaso eziñik.

3/ Euskalerriko mendi ta zelai,
uri eta baserriak,
ibai, erreka, iturritxoak,
lora ta lilitegiak,
euskeriaren babes gozoan
bizi zirian erriak,
zaindurik bere oitura garbi
eta egizko legiak,
galdu-gordian ikusten doguz
bere edertasun guztiak;
jazoera onen errudun gara
euskaldun erdalzaliak.

4/ «Euskalduna naz!» entzun nai dogu
eta gaiñera arrokeriz;
esaten dogu: «Euskalduna naz
izkuntzaz eta jatorriz!».
Geienok gabiz ospia edo
aundi izateko egarriz;
au ikusiaz Ama Euskera
negar-malkozko iturritz.
Zapiok kendu, jagi gaitez
euskeraren alde egiz,
eta maitatu Ama Euskera
egizko maitasun garbiz.

5/ Ez dot esaten erdera ere
biar dogunik baztertu;
erderea be, beste izkuntzak lez,
bardin goratuten dogu.
Erderaz ondo ikasi baña
euskereagaz ez aztu,
Euskalerririk ez dagolako
euskera ezkeru galdu.
Besten gauzari bakean itxi,
norberena ondo zaindu,
Euskalerrria ez da galduko
euskera zaintzen badogu.

6/ Emakumia mundu guztian
dabil modiai begira;
nundi edo andi elduko iaku
modia dagon lekura;
jantziko iaku, naiz-ta nabarmen
izan, modien jazkera,
barre egin arren bere itxurari
bape ez dautsa ardura.
Emakumetan sartuko balitz
gure izkuntza modara,
mundu guztiak egingo leuke
aunditasunez euskera.

7/ Itxi daiguzan geure arteko
eztabaidak ziero,

batu gaitezan euskaldun danok
anaitasunez maitero.
Euskerak galdu daben indarra
zigur, astiro-astiro,
geuganduko da, maitasun garbiz
guztiok lan ein ezkerero.
Ez da indarrik maitasunaren
indarra menperatzeko.
Guk be euskera maite badogu
ez da sekula galduko;
itxartu eta jagi gaitezan
belutu baiño lenago.



Balendin Enbeita bizi dan etxea:
goien baserri zarra; bean berria.

BASERRI-SUKALDEA

- 1/ Baserritxuko sukalde samur,
apal, maitati, otzana,
arantza artian arantza barik,
itxaropentsu barrena.
Benetan baida zorioneko
zukan sinisten dabena,
zu zara gure Betikoaren
oin-arri tinko onena.

- 2/ Txirua dozu izakeria,
alan be urrezko bizitza;
ez-eukiaren laguna zara,
baña zoriz aberatsa;
arantza miñak euki arren be
beti kantari biotza,
zeure samiñen asegarria
Betikoari otoitza.

- 3/ Begiratzian ituna damost,
ausnartu ondoren alaia;
zure izatean zorun-bidea
bizitza arantzaz betia;
biotz samiñen euskaia eta
etortekoan argia,
zorion barik bizi diranen
zorion txankil ezta.

4/ Itzez ta jolas zintzoen eder,
barrena beti ixilik,
izate onen aunditasunak
ez dautzu egin gañezik.
Ustez txikia zarean arren
ezta zu lango aundirik:
zure ezpanetan egia dager,
barruan ez gorrotorik.

5/ Baña zoruntsu zu izanikan
zelan daukazuz arantzak?
Txiro izanik aberatsaren
urre gorrizko meatzak?
Ez kutapena dala dirudi
darakuskuzun bizitzak!
Zugan badogu zer ikasia,
gura badogu, bakoitzak.

6/ Baserritxuko sukalde samur,
apal, maitati, otzana,
arantza artean arantza barik
itxaropentsu barrena.
Benetan baida zorioneko
zuri entzuten dautzuna,
zure esanak emongo dautsa
betirako atsedena.

(Karmel, 1958)

BERTSOLARI BATEN ERIOTZA

(Aita 1942'eko Abenduaren 11'an il zan;
orduko bertsoak dira auek.)

- 1/ Ludi-bizitza abesti gozoz,
biotz-abesti samurrez,
jakintsuaren gauzak azaltzen
naiz-ta jakitun izan ez.
Bertsolariak egin daroa,
goi-irudimen indarrez,
jakintsu askok ezin dabena
bere erriaren aldez.

- 2/ Zorioneko erri batentzat
bertsolarien jaiotza,
erri-maitale baldin badakar
ongille bere biotza.
Orra nun dagon bertsolari bat
Jaunari eska laguntza,
bere erriari emon daiola
egizko zero-bizitza.

- 3/ Erri osoa euki zenduan
adi zeure inguruan,
belarriak zur azken orduan
zer esango ote zenduan.
Gizona ez da iñoiz goratu
bizi dan arte munduan,
bera goratzen asi oi dira
eriotzako orduan.

4/ Maite zituzan oitura onak,
batez be euskera zarra,
bere eriotzan erakusten dau
maitasun orren indarra:
adore aundiz abestuagaz
errikoi bertso samurra,
ain maite eban bere erriari
damotso azken agurra.

5/ Azken agurra biotz barruan
betiko dago josita,
ordutik ona umezurtz nago
maixu onena galduta.
Nik gaur dakidan apur au daukat
beragandikan artuta,
eneban jakin zer falta neban
galdu arte neure aita.

6/ Uri, baserri, baso, zelaien
zoragarrizko abotsa,
amaika aldiz poztu ebana
entzuliaren biotza.
Erriak guren eban orduan
bere lanaren laguntza,
orra nun dagon zerraldo baten
ill-otzik bere gorputza.

BASERRIA

(1958 urtean, Bilbao'ko Arriaga Teatroan
abestua)

Biotz erdiko baserritxua,
nere jaiotza-tokia,
zenbateraño maite zaitudan
ez da errez esatia.
Zu zara gure bizi-bideko
egunoroko ogia,
egunsentiko txori-abesti
zoragarri ta pakia;
zu zara gure izaki danen
emoille eta jaubia.
Berialaxe ilgo litzake
baserri bako uria,
beragandikan iatorkulako
guk bear dogun guztia.
Baserrian da gure izkuntza,
euskera maitagarria,
euskal oituren gorde-lekua,
fede sendoen aulkia;
askok txikitzat zaukezan arren
benetan zara aundia,
Euskalerrria jaso nai bogu
zaindu daigun baserria.

ARRANTZALEAK,
DAKARRERA JUAN DIRANAK

(1958 urtean, Bilbao'ko Arriaga Teatroan
abestua)

Gure lurraren itxas-bazterrak,
alan diño istoriak,
aldi danetan emon ditula
itxas-gizon errimiak.
Asi Elkano, bardin Txurruka,
Matxin ta jarraitzailliak,
arrantzaliak, zetan esan bez,
besteren pare bagiak,
Dakar aldera juan dirian
gure arrantzale aundiak,
lagun arturik gure euskaldun
abade eta prailliak.
Batzuk sendiko ogien billa,
arimen artzain bestiak,
bitzuak dira euskaldun sendo,
fededun Jainko-zaliak;
Jaungoikoa ta euren aberri,
emazte eta sendiak,
gure arrantzale ta eleiz-gizonak
dituez euren maitiak;
naiz-ta atzerrian eurentzat izan
aundiak irabaziak,
euren erria ez dabe aztuko
euskaldun arrantzaliak;
amaika olango arrantzale aundi
emon dauz Euskalerriak.

ASTOA ETA ERROTARIA

Ast.: Etxeko jauna, aspalditxuan
zugaz enabil gustora:
gelditu bage beti lanian
batera eta bestera,
lanaren truke lasto sikua
natorrenian etxera,
niriak ein dau asto onegaz
errukitzen ez bazara.

Erro.: Aspalditxuan ikusten zaitut
lan egitiaz mindurik,
jatekoari atxaki emon
ta geldi egon gurarik;
ezer ein bage jan eta edan,
ez dozu gura besterik,
geldi ôteko etxe onetan
ez dogu bear astorik.

Ast.: Egun danetan beti lanian
bai dakizu nabillena,
zure zorroak ara ta ona
erabilten dodazana;
zuretzat dira irabaziak,
niretzat bakarrik lana,
beste gauzarik ez dot eskatzen:
gosea kentzeko jana.

Erro.: Zure lanaren irabazia
egunero artzen dozu,
lasto sikua, zatozanean,
kortan naikua daukazu;
beste gauzarik ez dozu bear,
arrantza gitxi eidazu,
eta lanera, zure bizkarra
berotzia nai ez bozu!

Ast.: Nagusi onek ez dau agertzen
menpekoen maitasunik,
onen biotzak ez dauka beintzat
astoaren errukirik;
zaratia ta palukadia
ez dau beste zuzentzarik,
nik uste neban lau ankakoak
zirala astoak bakarrik.

Erabagia:

Astoa eta errotaria
orra alkarraz autuan,
asto gaxoak arrantza baña
zaku astuna lepoan;
errotariak barre egin da
irabaziak kolkoan,
asto-pareko amaika kirten
bizi da gure munduan.

(1958, Zezeillaren 17'an)

MAITASUN GARBIA

(Doñu onen antzekoa: A. Mitxelenak: «Ogei kanta Arantzazuko», Alargunarena deritzana.)

The image shows a musical score for the song 'Maitasun Garbia'. It consists of five staves of music. The first staff is a treble clef with a key signature of one flat (B-flat) and a 3/8 time signature. The subsequent four staves are bass clefs. The music is written in a style typical of early 20th-century folk or regional music, featuring a mix of eighth and sixteenth notes, often beamed together. There are some accidentals, including a sharp sign (F#) in the second and third staves. The piece concludes with a double bar line at the end of the fifth staff.

Mutillak:

Illunabarran gerizpe baltzak
ixiltzen ditu basoak,
mendi-zelaiak ixilik dagoz,
murmurka errekatxoak.
Une onetan adirazten dit
neure maitasunen suak
etxe inguruan dirala oraingo
nere maitean pausuak.

Neskak:

Gaurko eguna igandea zan,
goizetik nintzan mezatan;
arratsaldean jolas garbian
gure erriko zelaian.
Illuntzerako etxera nator
garbi-zaleen antzean,
askoz obeto nagoalako
gaba ezkerro etxean.

Mutillak:

Maite bazaitut, maitatzen zaitut
nik beti maitasun garbiz,
sekulan ere ez naz ni bizi
loikerirako egarriz.
Lagunduteko gertu naukazu
bardin gabaz eta argiz,
etzara txarto bizi izango
nirekin beti bazabiz.

Neskak:

Nere bizitzan garbitasuna
beti izan dot gogoko,
Jaunai laguntza eskatzen deusat
garbitasuna zaintzeko.
Maite bazaitut, maitatzen zaitu
garbi-zale zarelako,
eta biotzez esaten deutzut
ez zaitudala itxiko.

Biak bat:

Abestu daigun biok batera
alkaturikan biotzak,
bata besteen maitasunean
jarraitu daigun bakoitzak.
Loraz jantziak izango dira
gutzat munduko arantzak,
zorioneko benetan dira
olangoaren ezkontzak.

(Aranzazu, 1959, VIII)

MUTILZAR BATERI

- 1/ Bertso batzuek jartera noa
bai al dakizue nori?
Berrogei urte neska atzian
dabilen mutilzar bati.
 Neskak ondoti
 igesta beti,
eurak dakie zergaiti,
orrek senartzat artzeko baño
izteko obia dirudi.
- 2/ Gozotasunik ez dau izango
neure ustez emakumentzat,
onen biotzan maitasun asko
ez da egongo andrientzat;
 neskak onentzat
 burua aunditzat,
gorputza dauke edertzat,
gura izan asko ez dabe eukiko
olango mutilzarrentzat.
- 3/ Falta dabena billa ibiltia
ori da bide zuzena,
ikusten dogu urte askotan
andra billa zabizena;
 gura dozuna
 fiña ta ona
ondo artuko zaituna;
zu baño obia ez da izango
zuri begira dagona.

4/ Toki askotan emazte billa
jo izan dozu atia,
patxadazkoa izan baziñan
topauko zendun andria;
 orain ordia
 zuri alabia
nok dauka emon guria?
Belu dabizen gau-txoriari
bat be emon ez da bakia.

5/ Bai dakizue zelangoa dan
mutil zarraren gogoia?
Zartzarorako aurreratzia
dotia edo dirua;
 orren burua
 ez dok leloa,
ederra dauken asmua,
erretirotzat seguru dauke
erriko kanposantua.

(1959, Abenduak 5)

GOIZ-ARGI, ONGI ETORRI!

1/ Jaiki, mutillak, jaiki,
baidator *Goiz-Argi*,
eta etxeko ate
leioak edegi,
pozik artu dagigun
argi eder ori,
biotzez emonagaz
geure ongi etorri.

2/ Ai, ze pozik gagozan
geure *Goiz-Argi*'gaz,
baserritarrentzako
daukazen gauzakaz!
Asko ikasi geinke
berau artuagaz,
eta polito bizi
irabaziakaz.

3/ Beti dago negarrez
gure auzoko Patxi,
esaten baserrian
ezin dala bizi;
beti lanian eta
poltsan diru gitxi,
oba dabela bere
baserria itxi.

4/ Patxi, jakin nai bozu
baserria ibilten,
artu *Goiz-Argi* eta
asi irakurten;
onek diñozan danak
badozuz egiten,
laster asiko zara
polito biziten.

5/ Ez egik artu, Patxi,
kalerako ames,
zuk dozun baserrian
bizi leike errez;
len be kaleratuak
asko dauz tamalez,
lengo baserriari
begira negarrez.

6/ Neguan gabiz, Patxi,
geure ganbaretan
artoak zurituaz,
ipoiñak kontetan;
Goiz Argi irakurri
lan-bitartietan,
buruz jokatuteko
baserri-lanetan.

7/ Agur dagitzut geure
pozezko *Goiz-Argi*,
Arantzazuko Amak
ondo zaindu bedi;
baserritarrentzako
on asko ekarri,
batez be gure euskaldun
baserritxuari.

(Ariatzan, 1959/XII/26)

EDURRA ETA ZOZOAREN AUTUA
TXEPETXAK ERABAGI

Zoz.: Mendi ta baso, bide ta zelai,
edurrak dauz estaldurik,
zozo gaxook lurmenen billa
gosiak amurraturik.
Zelan gabizen ikusi ta be
ez dau gure errukirik,
eneban uste edur zuriak
ain biotz baltza eukanik.

Edu.: Udan kantari pozez ziñian
mendi baso zelaietan,
edurrai barre egiñik arro
zebiltzan une aretan.
Ta orain neure aldia da ta
zetan zatoz ni tentetan?
Zeure lekuan konpondu zaitez,
ez sartu iñon praketan.

Zoz.: Udan kantari ibilli arren
eneutzun kalterik egin,
eta zuk barriz emen naukazu
otzez eta gosiakin.
Orrenbesteko biotz gogorra
zelan zara zu nirekin?
Bizi izaten ez dago errez
zu lango jauntxuarekin.

Edu.: Gauza gatxa da mesede egiten
iñori kalte egin barik,
nik edurragaz lurra izten dot
uragaz ondo aserik;
zuk barriz lurrak dakarrena jan
lanikan egin bagarik,
nor garan jauntxu aundiagoa
ori jakin nai nuke nik.

Txep.: Edurra eta zozoa emen
biak agindu gurian,
biak aukeran bizi nai dabe
arantza barik lurrian.
Ni emen nabil uda ta negu
al dodan lez sasipian,
pozik gaiñera kuku maltzurak
itxi ezkerro bakian.

Udaran loraz apaintzen dira
gure baso ta zelaiak,
eta neguan edurrak dituz
zuriz estaltzen guztiak.
Edurrak negu eta guk uda,
maite bakoitzak beriak,
nor nundik eta zelan ibilli
erakusten du sasoiak.

(Ilbeltzak 20, 1960)

BIZKAIKO GURE MENDIAK

- 1/ Gorbea, Anboto, Oiz, Illuntzar,
Sollube eta Bizkargi,
Bizkaigane ta Ganekogorta,
Sabigain ta Pagasarri;
euren artean zenbatu-ala
ainbat eratako mendi,
Bizkaiak mendiz apainduriko
gatzelu zar bat dirudi.

- 2/ Mendi gañetik ikusten dira
aran, baso ta zelaiak,
uri, baserri, lugintza eder,
errekak eta ibaiak;
zoragarritzko abestietan
txiroliroka txoriak,
benetan dira atsegingarri
Bizkaiko gure mendiak.

- 3/ Mendi goietan Kurutza Deuna,
ermitatxuak ugari,
egunsentiko argia Jaunak
lenen damotse eurari.
Asaba zarrak jarriak dira
siñismenen ezaugarri,
zer ikasia damoskularik
beian bizi garanori.

4/ Mendi gañeko bake-bizitzaz
ondo ausnartzen badogu,
beian ez dogun arako zerbait
mendian izango dogu.
Euskera zarrak mendian dauka
lenengo bere jarleku,
mendi-zaleak izan gaitezan
garbi nai bogu jokatu.

(*Karmel*, 1960)

BERTSOLARIA ZELAN EGIN

- 1/ Bertsolariak atarateko
zein dan biderik onena?
Lenengo euki biar dabena
berezko etorkizuna;
gero ikasi, sarri abestu,
ez galdu zaletasuna;
bertsolaria izan leiteke
ori egiten dabena.

- 2/ Bertsolariak, ona izateko,
baldintza onek bear ditu:
buru argia, biotz zabala,
nai badau ondo jarraitu;
irugarrena eztarri ona,
neurriai ondo begitu;
bertsolaria ona izango da
baldintza onek baditu.

- 3/ Bertsolariok gura badogu
goratu geure izena,
toki danetan agertu daigun
egizko gizontasuna;
bertso lizunez ez daigun loitu
euskeran edertasuna,
oba da etxian ixilik egon
garbi-zalia ez dana.

4/ Berba gitxitan emen esan da
bertsolari-izakera,
gure izena goratuko da
garbi saiatzen bagera;
maitasun sendoz, biotz zabalez,
jokatu daigun batera,
toki danetan zabaldu daigun
Aitor zarraren euskera.

(Oleri, 1960)

KUKUA ETA TXINDORRAREN AUTUA TXEPETXAK ERAGABI

Kuk.: Udabarria eltzen daneko
kukuka nago basuan,
guztiak pozez artuten nabe
elduten nazen lekuan.
Neure arrautza ipinten yuat
txindorren jauregitxuan,
ni baño obeto bizi dan iñor
ez dok egongo munduan.

Txin.: Txikia beti aundi-gurian,
ez da arritzeko gauzia,
aundiain barriz gustatzen iako
txikia zapaldua,
kukuai barriz bere umiak
iñon etxian aztia;
jakin nai neunke nok eman dautsan
ortako eskubidia.

Kuk.: Eskubidea norberak artu,
arpei gogorra izan oso,
ударик уда lanari iges,
beti ibilli eroso;
beste txoriai geure bearra
dabela siñistu-erazo,
ori egiten ez badok, ez dok
bururik egingo jaso.

Txin.: Ori dok, ori, onua edo
konseju emon daustana;
ondo dakigu alperrarentzat
lanbide onik ez dana.
Baiña guztiok eingo bagendu
zuk nigaz eiten dozuna,
jakingo geunke nok jango leuken
eguneko ogi biguna.

Kuk.: Eguneroko ogi biguna
beti iaukoat gaur arte,
toki danetan aurkitzen iuat
jana t'edana nai beste;
geidia zelan bizi ete dan
enok arduratzen bat be;
norbera ondo egon ezkerro
oba da bizi aparte.

Txin.: Kuku gaxoa, ondo bizi az,
olan autortuten dozu,
gerokoaren itxaropenik
guk legez ete daukazu?
Jaunak agintzen daben bidian
batera ez gagoz ni ta zu;
azken orduan erruki zaitut
olan jarraitzen badozu.

Txep.: Kukua emen ikusten dogu
munduko atsegiñetan,
txindorra barriz gerokoaren
zorion ames gozotan.
Zorion biak bear gendukez,
orduan pozik benetan;
baiña nok daki eperdi bataz
zillo bi ondo tapetan?

(Oleri, 1960)

MAITASUNAREN AZKENA

- 1/ Maitasunaren indarra zer dan
bear dan lez azaltzeko,
gizonak daukan argia ez da
naikoa orretarako.
Maitasunaren azkena, baiña,
zelan dot nik azalduko?
Nire biotzak maitasun bako
unerikan ez badauko?

- 2/ Maitasunaren azkena zer dan
azalduko dirauste,
agindu ori ez dakit ondo
egingo dodanik bete.
Lurreko gure maitasuna ta
goikoai begiratute,
uste bagian geratu leike
maitasun biak galdute.

- 3/ Alkarraz maite bizi diranak
badauke maitetasuna,
bikoitz orretan ikusten dogu
bakia ta zoriona;
bizitza dongez galtzen badabe
goikoan itxaropena,
lortu ete dabe goi eta beko
maitasunaren azkena?

4/ Maitasunaren azkena zer dan?
Nai ta nai ez da mingotza.
Maitasun barik ezin jaritxi
goi eskarrezko laguntza.
Maitasunetik iatorku geure
betiko zorun bizitza.
Maitasunaren azkena zer dan?
Ilda dagoan biotza.

(Olerti, 1960)

ZESTERUA

- 1/ Esaera zar batek
onela dirausku:
Lepo bete palugaz,
esku bete diru;
nire ogibidea
beti da zesteru,
lan asko ta lo gutxi
guretzat seguru.

- 2/ Zesteruak ei dira
ia aberastu,
nik ez dot diru asko
egin aurreratu;
lepoa makurtu ta
belaunak okertu,
par egin ezketiño
egiten naz poztu.

- 3/ Nai dogun salneurrian
otzarak saldute,
irabazten ei dogu
gura dogun beste;
alegiñak ein arren
diruak poztute,
urtien azkenian
beti San Silbestre.

4/ Goizian izarrakaz
lanari oratu,
gaubian beranduan
ondiño jarraitu,
neguan sarri busti
ta udan berotu...
Aberastasun orrek
zesteruak ditu.

5/ Zestoak egiteko
falta jostgarria,
aurrez ordaindu bear
nai bada barria;
baso-dunak eskuan
gura dau txindia,
ordaindu ezin bada
istillu gorria.

6/ Lan egitia danok
bearreko dogu,
geure bizigarritzat
ogia nai bogu;
baña egi aundi au
sekula ez aitzu:
lanaz bakarrik iñor
ez dala aberastu.

(Ariatza'n, Epallak 5, 1960)

TXEPETXA



1/ Sasipetan dabillen
gure txepetxue,
buzten laburra eta
zorrotza pikue;
txori danen errege
batzarrak autue,
ez dok txantxetako
txepetx txikitxue.

2/ Gorputzez txiki baña
izatez aundie,
munduan askok dauko
zure inbidie;
eskarrak gorde-leku
dozune sasie,
bestela oingo kendu
eutzuen bizie.

3/ Udabarrian dozuz
umetxuak azten,
zugatz-zuloan edo
orma zarren baten,
kuku zarren bat ez bok
eugana etorten,
eure jauregitxuan
arrautza egiten.

4/ Biotz onekoa da
gure txepetxue,
ain ondo artuteko
etxian kukue;
onek kenduten dautsa
umien lekue,
atzerritarrak ori
maiz egindakue.

5/ Zaindu daigun bako txak
norbere etxia,
txori kaltegarriai
itxiaz atia;
kenduten badauskue
geure euskeria,
amaitu zan betiko
gure Euskalerria.

(Oleri, 1960)

AGUR, ARIATZA!

(Doña: «Agur, Zuberoa...»)

Agur, Ariatza,
geure biotz erdi-erdiko
auzonetxua!

Agur, Ariatza,
geure ames gozo eta
jolas-lekua!

Biotzaren erditik
maitatzen zaitudana
len, orain ta beti!

Zar eta gaztedi,
pozez da kantari;

nai zaitut ikusi
aurpegia argi

ta biotza garbi
emonaz alkarri.

Ez dogu bizi bear
burua makurrik;
ez daigun iñoiz euki

biotzan kezkarik!

Pozez bizi gaitezán
danok alkaturik,

Ariatza beti goraturik!

Auxe eskatzen dot
gau eta egun nik
Ariatzagaitik!

(1956)

AITA MARTIN (G. B.)

- 1/ Ludi onetan bakoitzak dauka
neurtuta bere bizitza,
zenbatekoa izan leiteken
Aita Goikoak dau giltza.
Berak damotso gure izanari
bizi-bideko laguntza,
nai ta nai-ezik, on artu bear
zor dautsagun eriotza.

- 2/ Guztiak maite genduan geure
Aita Martin kalmeldarra,
euskaldun sendo, biotz aundiko,
jakintsu, apal, azkarra.
egi biribil mamintsu askon
egizko egille bakarra;
nai ta nai-ezik, on artu bear
bere betiko agurra.

- 3/ Karmengo Aman jantzi doneaz
karmeldar ziñan egiña,
irakasle ta izlari gartsu,
idazle sakon mamiña.
Zure betiko azken agurrak
gugan itxi dau samiña;
nai ta nai-ezik, on artu bear
aren lertze eriozkiña.

4/ Larogei ta bat urte zenduzan,
etziñan zarra guretzat;
oindiño emen gura zindugun
gazteon irakasletzat.
Eriotzaren naimenik etzan
gugan Aita Martinentzat;
nai ta nai-ezik, on artu bear
siñismen ezaugarritzat.

5/ Ondo egiñak ondoren ona,
onek dau urre-saria,
Aita Martiñek artu dau bere
egihen irabazia.
Jaunak danori emongo dausku
merezi dogun epaia,
nai ta nai-ezik, on artu bear
Jaunaren erabagia.

6/ Egien alde agertu ziñan
zeure arazo danetan;
iñoiz kikildu bako gizona
egi-bideko gauzetan.
Karmengo Aman ikur donea
maite zenduan benetan:
nai ta nai-ezik on artu bear
Aita Martin zeruetan.

(*Karmel*, XI, 1961)

GORA EUSKERA!

Euskaldun orok gogoan artu
asabai dautsegun zorra:
eurari esker guk daukagula
geure izkuntza ederra,
mundu guztiak txalotzen dauan
aberats, garbi, bakarra.
Testamentuan jarri euskuen,
daukagu zaindu bearra,
geure semeai erakusteko
dogu agindu gogorra;
bete dagigun, nai ez badogu
Aita Goikoan zigorra.

(*Olerti, 1961*)

JOANES ARTZAINAREN SIÑISMENA

1/ Euskalerriko gure lur maite
siñismenaren iturri,
zure emaitzak agertzen ziran
nun-nai eder ta ugari.
Bake deunaren gorde-lekua,
kurutza zendun gidari,
baña gaur ia kendu dautzue
zeure edertasun ori.

2/ Be-aldietan ez da ikusten
len euki zendun bakia,
mendi goietan ixillik dago
artzaiñen txistu alaia;
sukalde askotan ukatu dabe
mar-mar gozozko otoia,
txorakeritzat artzen dabela
aurreko zarren fedia.

3/ Goiko ta beko naspildu dira,
oinpean dabil egia,
au ikustean kistar erriak
galdu dau bere lotsia.
Nun ete dago Aitzgorri-peko
Joanes artzaian fedia,
zuzenduteko gaurko artzaiñen
egizko zeru-bidia?

4/ Asabakandik oiñik-oiñera
fedia beti da egon,
kurutza deuna goiburu dala
bere itzala da jabor.
Batzuk nai dabe guzur egiztu,
kurutz-zaleai or konpon!
Artzain txarragan artalde onik
ezin legike itxaron.

5/ Zer dala baña jazoten dana:
txikia beti errudun?
Apaingarri dan soiñaz bakarrik
ezin leike jua urrun.
Geure barrenak askatu eta
egia autortu daigun,
Jaungoikoa ta Kurutziagaz
egin nai badogu lagun.

6/ Ai, Urbia'ko Joanes artzaiña,
zure siñismen sendoa!
Gizontasunez eusko eredu,
egizko sendi-burua!
Artzain lagunak itxi zaituez,
nok dauka orren errua?
Autortu bear izango dogu
datorrenean ordua.

7/ Joanes artzaiñan bide zuzena
eredutzako arturik,
garbi jokatu bearra dogu,
ez dago beste biderik.
Egia beti autortu daigun
etsaien bildur bagarik,
guzurrarekin ez dagolako
maltzurkeria besterik.

(*Olerti*, 1961)

KIRSTI LIIKANEN

*Kirsti Liikanen Finlandiatarra da. Eme-
retzi urte ebazala, etorri zan euskera ikas-
ten. Bein baten, ango irakasleak esan eutse-
la, ikastolan ebizela, izkuntza bat zegoala,
oso ederra, beste izkuntzen antzik etzeuka-
na; eta berak itandu eutsala nun egiten zan
izkuntza ori; orduan irakasleak irribarre
egiñaz esan eutsala emen ipar alderuntz
egiten zala, Españiaren ipar aldean; orduan
sortu iakola onuntza etorteko gogoak, baita
etorri ere. Gure baserri onetan ikasi eban
iru illabeteren barruan. Bertso onek, ori
dala ta egiñak dira. Lenengoak, bereak ba-
liran bezela, Euskalerritari agur egiñaz; eta
bigarrenak, berak esaten euskulako euskal-
dun danok jakin bear gendukela; norbere
izkuntza ez jakitea lotsagarria dala.*

- 1/ Finlandiatarra naiz,
an daukat biotza;
nere aberri artan
entzun neban itza:
izkuntza bat zegola
guztiz aberatsa,
euskaldunen izkera,
eder garbi utsa;
ikasten etorri naiz
Euskalerrirantza.

2/ Euskalerriko lurrak
emen ikusirik,
euren edertasunak
nauke zoraturik;
euskeraz ikasi dot,
ez daukat damurik;
ain ederra izanda
nago arriturik
euskaldun askok zelan
dauken bazterturik.

3/ Agur, Euskalerrria,
baña ez betiko,
Finlandia'ra noia
deitu daustelako;
indarrik bage nago
agur egiteko;
zeure alaba legez
zaindu nozulako,
Liikanen'dar Kirstik
etzaitu aitzuko.

4/ Zure mendi ta baso
eta itxas-ertzak,
loraz apainduriko
zelai ta baratzak,
zure oitura eder
garbi aberatsak,
zainduten dituala
euskera izkuntzak,
gogoan izango dauz
Kirstiren biotzak.

1/ Finlandiako Kirsti Liikanen,
 erakusten daun bezela,
 ikusten dogu biotz aundiko
 garbi ta zintzoa dala;
 Euskalerrira etorri iakun
 euskera ikasten beñola;
 ikusten dogu euskera ikasi
 ederto egiten dabela,
 esaten dausku euskotar danok
 jakin bear gendukela,
 norbere izkuntza ez jakitea
 lotsagarria dogula.

2/ Iru illabete barruan dausku
 euskera ederto ikasi,
 gura dabenak egin leikela
 Kirstigan dogu ikusi;
 esaten dausku euskera dala
 edertasunez nagusi;
 au ta guzti be euskaldun asko
 kontuan ez gara jausi;
 au ikusi ta kontzentzi garbiz
 gu ezin geintekez bizi,
 eta euskaldun izenik ere
 askok ez dogu merezi.

3/ Euskalerriko emakumea,
kantuz nator esatera:
lur maite onen loria eta
frutu emoille zeu zera;
zuk nai badozu zure aurtxoak
ikasi leike euskera,
orretarako bear dozuzan
giltzen jaubia bazera;
arren dirautzut, ez galduteko
eskuan dozun aukera;
bestela alperrik, egizko euskaldun
emakumea etzera.

(1961)

NEURE BASERRIKO BIZITZA

(Doñua: «Ikusten duzu goizean...»)

- 1/ Goizean ogetik jagi,
gelako leioa edegi
eta jartzen naz ni adi:
Etxe ondoko intxaur gaiñian
txantxangorria kantari,
eguzkia dizdizari,
nere baserritxuari
bake gozoan geznari.

- 2/ Jagi ta lenengo lana
auxe egiten doguna:
zuzendu Jaunarengana;
Berai eskiñi neke ta lanak,
eskatu laguntasuna,
jateko eta edana,
guretzat berak emona,
bere eskuan utzi dana.

- 3/ Gosaldu eta lanera,
bardin baso nai solora,
poz-pezik joaten gara.
Geure gauzetan ezpairik bage
jokatzen dogu batera;
sendi arteko izkera,
aurreko zarren antzera,
egiten dogu euskera.

4/ Lan egin ondorenian,
eguna amaitzen danian,
etxera illunabarrian.
Emazte ona begira daukat
irri-barreka atian;
senarra ondo ikustian
poza dauka biotzian,
ondo artzen nau etxian.

5/ Sendi, emazte ta senar,
alkarri egiñaz didar,
ondo artzen dogu alkar.
Artuten doguz arto ta gari,
babarrun, patata, sagar;
osasuna eta indar
badaukagu, Jaunai eskar;
ez dogu geiago bear.

6/ Etxe barruko lanetan
abeslari bertsoetan,
aberiak gobernetan.
Danok batera gero apaldu
sendiko bake gozotan;
ogerako orduetan
agurtza deuna errezetan,
ondoren ogera lotan.

7/ Neure baserri kutuna,
aita ta amak emona,
nai dot zure iraupena.
Ondorengoak ez beie galdu
zuk dozun edertasuna,
oitura ta siñismena;
beti izan zentzunduna,
egiazko euskalduna.

(*Karmel*, XI, 1961)

ORIXE JAUNA (G. B.)

1/ Jakintsu izan, ez-jakin bizi,
il da gero jakituna,
bizi dan arte ez da ezautzen
gizonaren altasuna;
jakitunetan goirenengua
genduan Orixe jauna
il ondorian asi da erria
goratzen bere izena,
eriotzia bearreko al da
ezagutzeko gizona?

2/ Jakintza eta biotz zabala
bazitun Orixe jaunak,
ez dira errez sortu izaten
au bezelako gizonak;
bere lanakin goiko malletan
jarri zitun euskaldunak;
lutuz jantzita egonagaitik
bere maitale ziranak,
Orixe il da baña guretzat
bizi dira bere lanak.

3/ Orixe jauna dala ta eztala
kolore guztiak dabiltz,
gu ere emen euskaltzaleok
bere alde otoitzez gabiltz;
kontzientzi baten gizona danak
aurka ezin lei egin itz;
guztion aita gendualako
itz lauz, olerki ta neurtitz,
oba genduan irakasletzat
oraindak bizi izan balitz.

(1961)



Senar-emazteak

ARTEAGA'TAR IJINEO DALA-TA

- 1/ Txirotasuna mundu onetan
geiena arantzazkoa,
diru apur bat daukan orduan
bera zorionekoa!
Pozaldietan aztuten iako
lengo samin naibakoa,
txiroa beti etorkizunen
itxaropen aundikoa.

- 2/ Zeanuriko seme bat emen
arturik eredutzako,
erabagi dot bere bizitza
bertsotan azalduteko.
Txirotasunez bizi zan baiña
bera zan zorioneko:
itzez, egitez, gauza danetan
gizon osoa zalako.

- 3/ Maizterra zan da bere ugazabak
atara eban etxetik,
esan daustenez ogei bat urte
igaro dira ordutik.
Baserri ori gaur be utsik da
Ijineo alde zanetik,
baiña txarrikan etzun esango
kalteak eukiagaitik.

4/ Alabatxoa gaixo eukala
etxetik urten bearra,
ori izan zan bere barruko
naibako samin bakarra.
Baiña ugazabai gorroto barik
egiten dautso agurra,
gaur eguneko jauntxuentzako
zer erakutsi ederra!

5/ Errekartetxo baserria zan
bigarren bizi-lekua,
baserri artan Ijineo zan
guztiz zorionekua.
Esaten eban: «Errekartetxo,
nere txoko begikua!
Beste tokirik eneuke gura,
emendik gero zerua!»

6/ Guztientzako eukiten eban
etxeko atia zabalik;
beretzat danak bardiñak ziran,
etzeukan apartekorik.
Ijineontzat etzan izaten
ez goiko eta bekorik;
biotz bardiñaz maitatzen zitun,
etzeukan areriorik.

7/ Kas-kas atea joten eutsien
bardin egun eta gabaz,
eta guztiak artzen ebazan
«Ator aurrera!» esanaz.
Gaiñera zenbat alikatu be
beretzako eukanagaz,
guztiak pozez geratzen ziran
bere esku zabalagaz.

8/ Maite ebazan Gorbea eta
Sabigain'eko kurutza,
esaten eban: «Bien erdian
pozikan daukat biotza!»
Uria baiño naiago eban
Errekarteko bizitza,
bere eukietan txiroa baiña
barruz gendun aberatsa.

9/ Eguneroko bere lanetan
sendia alikatzeko,
goi-maitasunez jokatzen eban
ogia irabazteko.
Arantza artian bizita ere
sobra apur bat baleko,
aberatsaren milloiak baiño
geiago zan beretzako.

- 10/ Penarik bako bizitzia da
maitasun bako bizitza,
Ijineori neke ta lanak
ez dautse mintzen biotza.
Neke artian maitatzen ditu
emazte, sendi, kurutza;
aukerak eta diruak ez dau
iñor egin aberatsa.
- 11/ Ipiñaburu izaten eban
igande eta jaietan
meza entzuteko txoko autua,
siñismen sendoz benetan.
Emendik eta Saldropo'raino
bide neketsu aretan
zenbat alditan joango iakun
agurtza deuna errezetan?
- 12/ Ilgo zan baiño urte bi aurrez
bere eriotzaren barri
sendiko eta bere lagunai
egin eutsen iragarri:
Kristo Erregen eguna zala
izentauriko egun ori,
egun berian gaixotu ta il zan,
ez al da au miragarri?

13/ Txiro izan da aberats bizi
ez da erreza izaten,
Ijineoren bizitzak baiña
argi dausku erakusten:
diruaz ez da gure betiko
zeru-bizitza erosten,
goi-maitasunez, ondo egiñaz,
zerua da irabazten.

14/ Kristo Errege maitatzen eban
eta artzen eban aintzat,
egun berian eroan eban
Kristo Erregek beretzat.
Ongilleari Jaunak zerua
emoten dautso saritzat,
au lortuteko artu dagigun
Ijineo eredutzat.

(1962'eko Iibeltzaren 5'an)

ARRANTZALEA

- 1/ Eleiz-torrean kanpaien otsa
iru durundin kantua,
kalian mar-mar eta didarka,
zalaparta ta txistua,
esku batian argi txiki bat
eta lepoan zakua,
eldu da nunbait arrantzalea
itxasoratzeko ordua.

- 2/ Aizea txistuz jostari dabil,
leio ta zugaitzak dantza,
gau illuneko itxas-orruak
dauke legoiaren antza.
Au ta guztiz be ez da kikiltzen
arrantzaleen biotza,
bere maiteai agur eginda
badoia itxasorantza.

- 3/ Boga ta boga, ontzia doia
jostari itxas erdira,
urratu eta erdibituaz
ura alde bietara.
Begiak bizkor, sareak gertu,
gogoz ta adorez lanera,
arraña dagon tokian azkar
arrantzaleak an dira.

4/ Arrantzaleai lanen ordañik
iñok ez dautsa emoten,
txirotasunez bizi izan arren
kantari dira ikusten.
Aberats ala txiroa emen
pozik nor bizi leiteken,
arrantzaleai begiratuta
ez da erreza jakiten.

5/ Ainbeste gizon arrantzaletan
itxasoak dauz iruntsi,
gu legorrean bizi garanok
ez gaitu egiten atxi.
Naiz-ta sarritan arantza-miñez
lurreko gauzetan jantzi,
arrantzalean aurrean danok
txapela daigun erantzi.

(Oleri, 1962)

JESUSEN ERIOTZA

- 1/ Zigorkadakaz gorputz guztia
goitik beraño auldata,
Jesus badoia Golgotarantza
kurtze astuna artuta;
jausi ta jagi, badoia aurrera
gorputza indargetuta,
obenen erruz laster da Jesus
kurutze baten josita.

- 2/ Pilatos danok gaiztotzat dogu,
izan leiteke egia;
danoi atsegin izaten iaku
ñoi errua emotia,
Obenakgaitik Jesus il bazan,
nor da obenik bagia?
Pilatos ala pekatariok
zein ete gara obia?

- 3/ Ñor errudun olan jarteko
geu garbirik ete gagoz?
Geure buruak jasoko geunkez
ezautu barik balegoz.
Ñor errudun jarri ta geure
eskuak garbitzen gatoz?
Orra bi millagarren urtian
emen millaka Pilatos.

4/ Kendu daiguzan betaurrekoak,
ikusi geure bizi-tza,
besten obenai bakean itxi,
ondo autortu bakoitza.
Mingañez uso, barruz gau-txori,
Pilatos asko gabiltza,
baiña zerua irabazteko
bearreko da kurutzza.

(*Jesusen Biotzaren Deya*, 1962)

UZTAPIDE, TXAPELDUN

- 1/ Nik Uztapide ezautu neban
bertso kantari beñola,
bertsolari lez onena dala
erri guztiak diñola.
Aundia dogu baña apala,
ez da arrotuko iñola,
Uztapide da Euskalerriko
txapeldun urretxiñola.

- 2/ Bertsolariak, zartuagaitik,
jakitun antzo eztena,
gure Uztapidek danentzat dauka
zentzundun erantzupena.
Orretan beti agertu iaku
euskaldun eta gizona,
ori dala-ta erriak diño:
Au da gure txapelduna!

- 3/ Jakituriak ez dau egiten
bertsoetarako grazi,
orretarako jaio ez bada
alperrik egin garrazi.
Manuel jaunak eskola asko
etzuan eingo ikasi,
au ta guzti be emen daukagu
Euskalerriko nagusi.

- 4/ Ikusten dira filosofoak
gizon argi ta altsuak,
teknika eta rima-kontuan
bertso-zale jakintsuak.
Baña gatza ta piperra palta,
ez dira orren gozuak;
erriak askoz naiago ditu
Uztapideren bertsuak.
- 5/ Bertsoetako bear ditugu
berezkoa ta biotza,
onek ez ditun bertsolariak
alperriko dau jakintza.
Gure Uztapide berezkoz eta
biotzez da aberatsa,
jakitun askok artuko leuke
onen piper eta gatza.
- 6/ Donostiako Astorian zan
argi ta garbi ikusi,
danen gañetik, kostata baña,
zelan zendun irabazi.
Batzuk zalantzan ibilli arren
zu zara danen nagusi,
Euskalerriko bertso-txapela
ondo zenduan merezi.

7/ Omen-jai asko merezi ditu
Uztapideren txapelak,
frutu ederrik asko emon dau
gaur arte bere arbolak.
Ikasbidetzat artu daiguzan
bere bertsozko eskolak,
bera da gure arbola eta
gu gara bere orbelak.

(1963)

JUAN OGE TA IRUGARRENA IL DA!

1/ Dan, din, dan, din, dan, durundi-otsak,
eleiz-kanpaiak deadarrez,
Aita Santua il dala eta
mundu guztia negarrez.
 Biotz samurrez
 maitasun-garrez
zaintzen ginduzan ardurez;
bere eriotzak ze galtze daukan
ez da azalduten errez.

2/ Lau urte eta zazpi illabete
Aita Santu egin ditu,
egin dituan lan ederrakaz
guztiok gaitu arritu:
 mundua batu,
 egia autortu,
aundikeria baztertu;
danak diñue olango Aitarik
ez dala iñoiz ezautu.

3/ Mundu guztiak maitatzen eban
Jon oge ta irugarrena,
ikusi dogu danak beretzat
sendi bateko zirana;
 anaitasuna
 ta batasuna,
gizonen askatasuna,
auxe zan gure Aita Santuak
beti eskatzen ebana.

4/ Erri-maitale egiazkua
Aita Santua izan gendun,
iñoren gauzaz ez jaubetzeko
sarritan esaten euskun.

Beti fededun,
egian lagun,
geure ondasunen aldun,
askatasuna bear gendula
bakea gura bagendun.

5/ Aita Goikuak jarririk dauka
bakoitzai azken ordua.
eta deituten daben garaian
gure bizitza badua.

Artzai sendua
eta zindua
Jaunak dau beregandua,
tamalez bere eriotziak
lutuz jantzi dau mundua.

6/ Lau egunian agoliñian,
zer ez eban igaroko?
Mundu guztia Jaunari eske
al bada osatuteko.

Biotz aundiko
Aita zalako,
bardiña guztiontzako,
geure artian nai gendun baña
iges egin dau betiko.

SOLOETA'TAR ILARIO
JAUNARI OMEN-JAIAN

- 1/ Juan daneko lau egunian
nagualako gaxorik,
Iorretarrak ez dabe entzungo
nire agotik bertsorik;
soñez ez bada gogoz or nago
erri guztiaz baturik,
sinistu gero jai eder ortan
nagola parte arturik,
nire biotza or daukazue
zuenakaz alkarturik.

- 2/ Bearreko zan gaur Iorre'ra
al dan geien joatea,
eleiz-gizon ta agintariak,
bardin zar eta gaztea;
erri osoak artu bear dau
jai eder ontan partea,
Don Ilarioi erakusteko
bakoitzen borondatea,
au ta guzti be kostako iaku
gizon au ordaindutea.

- 3/ Don Ilario izan genduan
egizko abade zintzua,
beartsuaren errukiorra,
pozgille arduratsua.
Jakintzaz aundi, baña apala,
borondatez indartsua,
nagirik bako langille trebe,
erri-maitale sutsua,
nok kantau leiken bear dan legez
au goratzeko bertsua?

4/ Irribarrezko aurpegi alai,
urre gorrizko biotza,
arimen artzai egiazkua,
santua bere bizitza;
Don Ilarion borondatea
azken bako aberatsa,
berak landua erri onetan
sasiz eguan baratza,
Iorretarrak gizon oneri
mesede asko zor dauksa.

5/ Jai eder onen edertasunaz
sarri bear da oroitu,
Don Ilarion irakatsiak
bakoitzak ondo ausnartu;
erria ondo erabilteko
egizko bidea artu,
eleiz-gizon ta agintariak
zuzen dagien jokatu,
Don Ilario zeruan da-ta
berai biotzez eskatu.

(1965)

AL DALA ARGIZ IBILLI!

- 1/ Bertso batzuek abestuteko
ona nabe gaur ekarri,
zeuzertxu emen esan dagidan
ospatzen gauzan jaiaiti.
Orretarako ni baño obiak
berba egin dabe aurreti,
baiña neuk ere zerbaitxu emen
esan barik ezin itxi.
Nire bertsoak izango al dira
guztioentzat pozgarri;
lenengo neure pozezko agurra
erriko abade jaunari,
bardin pantzezkatarri eta
erriko agintariari,
enparaukuai ongi etorri
ta arratsaldeon danori.
- 2/ Mendi-gallurrak ez dabe izaten
bata bestien bearrik,
baiña gizona ezin lei bizi
besten laguntza bagarik;
batak bestiai maite izateko
jaioak garialarik,
geure geidiai ezin geneio
ukatu laguntasunik.
Jainkuak diño: «Alkar maite izan!»,
itz onek ez dauke utsik;
«Damu dot, Jauna! Damu dot, Jauna!»
sarritan esanagaitik,

lagun urkoa maite ez badau
orrek ez dauka federik,
bere gilborren fedia baño
ez dau ikusten besterik.

3/ Lorarik lora geienok gabiz,
nai dogu edertasuna,
bide ortatik iatorkula ustez
bakia ta zoriona,
eta etxaku gogoratuten
lorak arantzak dituna;
gaurko bizitza esan legike
era ortan darabilguna.
Bakotxak ondo ausnartu daigun
orain esango dodana:
lenauko gure oitura onak
ia emon dabe azkena;
berba labanak, jolasak bardin,
gaba arturik eguna;
auxe da gure etxietako
bakia kendu dabena;
zar eta gazte, esan legike
galdu dogula zentzuna.

4/ Zorioneko gau illuneko
ibilleria dala-ta,
eleiz-gizonak aspalditxuan
babilie naiko zarata;
gaztiak barriz zetan esan bez,
gaur asko dakie eta,

eurai begira gurasoak be
gabiz erdi txoratuta,
diñogularik: Gaurko gaztiak,
asko ikusten dabe-ta,
gau-txoriaren filosofian
asko dauz aurreratuta;
orgaitik dabiz listotxuenak
gaba eguntzat artuta.
Eta ondiño guraso asko
pozarren au ikusita...
Ostera ere ibil biarko
abarka zarrak jantzita!

- 5/ Ez al dozue entzun sekula
bei nabarraren tratua?
Ona zala-ta tratante bati
gabaz erosirikua,
baiña biamon egun argitan
ura zan ikustekua!
Adarrak oker, begi bakarra
eta errapa sikua,
esaten eban: «Tratante arek
emon deustan engañua!»
Ez uste gero guzurra danik,
au da ba jazorikua,
gau-jolas loien zale danentzat
gogoan artutekua.
Uste ez arren gabaz jarri lei
arrapetako zepua;
baita listoa dala uste arren
erbitzat sartu katua,

eta betiko kezketan jarri
etxeko bizimodua,
eta etxian apari ordez
asarria ta palua.

6/ Gabaz egiten diran tratuak
egun argitan ikusi,
gau-zale eta parrandariai
bardin argitan igarri;
orrelangoak izaten dira
beti etxe-kaltegarri,
sendi arteko aitu eziña,
iskilimiña ugari.
Bakez da pozez bizi nai bozu
al dala argiz ibilli!

ADAN ETA EBA
SAGARRA JAN DA GERO

Adan:

Atsegiñezko baratzan giñan,
bear genduana sobra;
sagar bat geunkan galazorikan
ta bera andreak proba.
Zorioneko giñian eta
zer egin daustazu, Eba?
Pentsetan nago sortu ez baziña
izango nebala oba.

Eba:

Atxaki billa zabiltzaz baña
etzagoz ondo, senarra,
zeu ziñan baratz eder ontako
jaun eta jaube bakarra;
etzendun zetan ezer parkatu
naiz t'entzun nire negarra,
baña zeuk ere neuk lez gustora
jan egin dozu sagarra.

Adan:

Jaunak laguntzaz emona zara,
emen ez dago guzurrik;
eneban uste zure aldetik
izango zanik okerrik.
Sagar bategaz engañau nozu
ta damutzia alperrik,
baña olangorik etzan jazoko
bizi izan banintz bakarrik.

Eba:

Neure antzera apurtu dozu
Paradisuko promesa,
agintari lez zure indarra
ikusi dot ezer eza.
Tentaziñuak austeko zu be
neu legez etzara gauza,
bizio ori orain iztea
ez dok izango erreza.

Adan:

Suge zitalak engañau zaitu
arrokerizko bideti,
sagarra janda uste zenduan
izatia danen goiti;
eta senarrai emon artian
ibili zara negarti,
neu be tamalez negarrez nago
zure esana egiteaiti.

Eba:

Egin da gero atxaki billa,
ori da gizontasuna!
Zeu izan zara baratz onetan
agindu bear dozuna.
Andreagaitik galdu badozu
baratzeko ondasuna,
aurrerantza be izango zara
nere menpeko gizona.

Adan:

Zure esanian igaro neikez
bizitzako ordu latzak,
baña bakoitzak eukiko doguz
geure neurriko arantzak.
Zuregan ere sortuko dira
une estu ta garratzak,
pena gogorrez izango dozuz
zeure aurtxoan jaiotzak.

AUNDIKERIAK ONDOREN ONIK EZ

- 1/ Aundi-gureai beti atea
edegi nai izatia,
esango neuke dala lapurrai
atea edegitia.
Arrokerizko aundi-gureai
itxi daiogun atia,
bestela sarri izango dogu
mesede ordez kaltia.

- 2/ Aundi-zaleak ez dau izango
apalak daukan bakerik;
iñor menpean euki gurea,
ez dago gaixo txarraurik.
Bide ortatik ez dau lortuko
bere zorion osorik,
aundikerizko egarri orrek
ez daukalako aserik.

- 3/ Aundi-zalea baldin bazara
etzara gizon zuzena,
orrek gizonai galduten dautsa
sarritan bere zentzuna.
Bere agintza ez galtzearren
galtzen dau gizontasuna,
eta ondoren eskuak utsik
olangoaren azkena.

4/ Arrokeria, aundikeria,
ekaitz guztien zuztarra,
zuzen-zalien arantza miña,
menpekoaren negarra.
Gizonak alkar aitu eziña,
gorrotoaren sukarra,
auxe da egiz arrokeriak
dakarren bide bakarra.

5/ Aukeran bizi gura dabena
bere arazu danetan,
beti ezin lei ondo ibilli
giza-bideko gauzetan.
Aundi-zaleak biotzik ez dau,
beti bekaizkerietan,
mingaiñez uso, barrutik otso,
umea egikeretan.

6/ Aundi-zaleak ez dau izango
menpekoen errukirik,
orretarako arrokeriak
ez dautsa emoten lekurik.
Errian ona nundik datorren
ez dau orren ardurarik,
gura dabena aukeran bizi
eta sakela beterik.

- 7/ Zenbat laterri jagi izan dira
arrokerien indarrez,
besten gauzakaz jaubetu eta
zigortzen biotz gogorrez.
Bake-zaliak gudan ipiñi,
guraso asko negarrez,
jauntxukerian kaltea zer dan
azaltzen ez dogu errez.
- 8/ Gauza danetan aundia dana
Jaungoikoa da bakarrik,
apaltasunez ere ez dago
bera baiño aundiagorik.
Txiro ez-jakin batzuri oiñak
garbitzen zan makurturik,
aundi izateko apala izan,
ez dago beste biderik.
- 9/ Adan da Eban obena ere
aundi-guretik sortu zan,
Kristo gurutzan josi ebana
arrokeria izan zan.
Mundu nastu au etzan izango
aundi-zalerik ez bazan,
bake deunian bizi nai bogu
apalak izan gaitezan.

AZERIAREN KONTUAK

- 1/ Neure bizitza zelangoa dan
egiten nua autortu,
naiz-ta gizonak gura ez arren
azeria ontzat artu:
mendietako aitz-zuloetan
artzen dot neure ostatu,
an egiten dot esamiñia
gilborra zelan asetu.

- 2/ Ardi ta bildots, bardin arkume,
ollo, ollanda, ollarrak,
orrexek dira nire gogoko
janari gozo bakarrak.
Eskuratzeko egiten dodaz
buru-austiak gogorrak,
neure atzian dabizelako
gizonak eta txakurrak.

- 3/ Odol-zalia deitzen dautsie
gizon orrek azeriai,
eurak gogotsu aitzua sartu
bildots eta egaztiai.
Jataldi edo banket ederrak
egin astegun eta jai,
euren pekatu baltzen errua
azeriari emon nai.

4/ Gizonak nai dau bere eskutik
gauzak erabilitia,
azeriantzat gosia eta
eurak naikua jatia.
Jaunak emonda guk be daukagu
mundu onetan partia,
kostako iake ez-jakiñian
ni tranpan arrapetia.

5/ Ardi ta bildots eta egazti
baldin badodaz garbitzen,
gizonak askoz geiago dituz
neurritz kanpora ondatzen.
Au ta guzti be euren burua
santutzat dabe agertzen,
guriak ein dau lege obarik
munduan ezpada sortzen.

6/ Nere sendiko bizimodua,
bardin jan eta edana,
aintzat artuta benetan ditut
Jaunak neretzat emona.
Gizona dogu neurritz kanpora
Jaunagandik dabillena,
guztiok ondo biziko gara
ontzen danian gizona.

(1958)

MINGAÑEZKUAK EZ DAU BALIO,
BIOTZAK MAITE EZ BADAU

- 1/ Bada-ezpadan ez daigun jaso
larregui geure burua,
ez dogu inok zetan ibilli
bestei emoten errua.
Bakoitzak ondo zaindu bagendu
emen geure sor-lekua,
etzan onela indargetuko
euskera biotzekua.

- 2/ Euskaldun askok gure izkuntza
mingañez goratuten dau,
parkatu baña jazokun onek
sarri tamalez jarri nau.
Emen alperrik egingo dogu
orrua egun eta gau,
mingañezkuak ez dau balio
biotzak maite ez badau.

- 3/ Ura juanda presa egitia
beti izaten da berandu,
Ama Euskerai bizi dan arte
egin daiogun lagundu.
Mingañez eta biotzez bardin
erabilliko bagendu,
gure izkuntza laster litzake
izkuntza danen eredu.

4/ Ama Euskera jaso gurarik
euskaldun onak baigabiltz,
beste batzuek izkuntza eder au
oinperatu nairik dabiltz.
Nere barrena zabaldutzen da
euskeraz egitian itz,
tamalez laister ilgo nintzake
euskerarikan ez balitz.

EZKONDUTIA ONA ETE DA?

- 1/ Ezkondutia beti da ona
biak diranian onak;
izango dabez euren bizitzan
arantzak eta bai penak,
baiña maite-min diran arantzak
loraz apaintzen dau Jaunak,
eta saritzat jasoten dabez
umetxoaren laztanak.
Olangoaren barri ez daki
mutilzar gelditzen danak.

- 2/ Ezkontza ona ala txarra dan
Matusaleni itandu,
gauza onetan esakun asko
egiñak dira zabaldu.
Batzuek ondo konpontzen dira,
bestatzuk ezin atondu;
ez da erreza aukerakoa
emen egiten zuzendu,
baiña mutilzar geratu baiño
oba sasoian ezkondu.

3/ Ezkontza ona ala txarra dan
emen nire erantzuna:
gauza onetzaz ziur ôteko
ezkondutia onena.
Maitasun barik ezkontzen danak
arantzazko ondorena;
maitasunagaz egiten danak
poza eta zoriona.
Orra ezkontza batentzat txarra
eta bestientzat ona.

4/ Ezkontza-egun txarrik ez dago,
geroz dauz erre-egosiak,
Jaunan legian gura badoguz
eroan gauza guztiak.
Emakumia prakaren jabe
ta gizon kanpo-zaliak,
ezkontza ondo eroateko
ezaugarri itxusiak,
mesede baiño kalte geiago
dakar onen ezkontziak.

ARIATZA'RI

1/ Ariatza'ko ibar zelaian
loraren usain gozua!
Zugatz gañetan txorrotxioka
birigarro ta zozua.
Gurutz Deunaren babes gozoan
sendiak eta auzua,
zeure gomutan daruat beti
neure bizitza osua.

2/ Lurbira zear egongo dira
uri ederrak jantzirik,
baratz ederrak, lorategiak
aundiki lilluraturik.
Baña, Ariatza, niretzat ez dau
zu bezelako lorarik,
zu zara nire txoko bakarra,
ez daukat maiteagorik.

JOSEBA DEUNARI ESKATZEN

*(Ariatzako eleizan abesten
diran abestiak.)*

1/ Jesus eta Marian
zaintzalle San Jose,
zeugana gatoz emen
laguntasun eske:
Jesus Jaunan eskerra
zeugan daukozu-te,
erbeste ontan gugaz
errukitu zaite,
Jesus eta Mariai
eskatu gure alde.

2/ Ostatu billa ziñan
Belenera eldu,
ostatu barik ziñan
samiñez geratu,
baiña goi-aingeruak
zinduezan poztu.
Geu be samin-aldiak
ez gaitzan okertu,
Jaunaren aingerua
guri be bialdu.

3/ Ejito'rantza iges
joan ziñanian,
ze samin egongo zan
zure biotzian!
Baiña aingeruak barriz
esan eutsunian:
«Jauna dozue lagun!»,
poztu egin ziñan.
Geu be poztu gagizuz
erbeste onetan!



Balendin Enbeita ta Iturria bertsolariak

AMERIKETARA DIRU BILLA
JOATEKO AMESEAN
DAGOAN SEMIA ETA AMA

Amak:

Ene semia, bazoiaz iges
zeure etxea itxirik,
ain maitez azi zinduzan ama
izten dozula bakarrik.
Amerikara, diru apur bat
geiau irabazi nairik;
zu jaio ziñan etxean bere
ez dozu ogi-faltarik.

Semeak:

Ez da, amatxu, ogiagaitik;
nai dot zure zoriona.
Nik ondo dakit ni aztearren
lan asko egin dozuna.
Ekarri nai dot Amerikatik
zuretzako ondasuna,
nai dodalako ondo ikusi
ni azi ninduan ama.

Amak:

Aukera aundirik ez dogu baña
zerbait badago jateko,
lan egiñagaz artuten dogu
naikoa bizi izateko.
Zure agurra izan leiteke
geiago ez ikusteko,
daukagunagaz askoz pozago
ementxe gara biziko.

Semeak:

Amerikara joanagaitik
ez naz egingo ni aztu,
zure semeak egun danetan
gogoan eukiko zaitu.
Lur alde artan beste asko lez
laister eingo naz dirutu,
ta bitarteko pena guztiak
diruak aztuko ditu.

Amak:

Ondiñokarren zu bizi zara
lora mardulen artean,
gauzak ondoen ezautzen dira
garaia datorrenean.
Zenbat nai dodan zu ikustea
beti neure aldamenean,
ori jakiten asiko zara
aita egiten zarenean.

Semeak:

Zure barruan zer egon leiken
ezin negike ausnartu,
orretarako zeuk diñozun lez
sendiaz bear jaubetu.
Beraz ez dakit neure amaz beste
egingo naizen oroitu,
zu aiña maite dodan semerik
ez da errez egingo sortu.

Amak:

Guraso batek duan guztia
dauka seme-alabentzat,
egi aundi au ama izan arte
ez-jakiña zan niretzat.
Amaren itzak goguan artu
geroko gomutakitzat:
ama bat dala eun sementzako,
seme bat ez amarentzat.

Semeak:

Laztan artean azi ninduzun,
beti izan nozu gogoko;
aldi danetan beti zauz gertu
nire ona ikusteko.
Baña sasoa daukat nik orain
dirua irabazteko,
Amerikatik natorrenian
poliki gara biziko.

(1966, Dagonillak 18)

AMA

- 1/ Nere sorrera eta
jaiotza urrena,
ugatz gozuarekin
indartu ninduna;
beti nun ikusiko
semearen ona,
ni pozik ikustia
bere zoriona;
ez da azaltzen errez
aman maitasuna.

- 2/ Gauza aundirik ez dot
neure amantzako,
naiz-ta berak daukana
izan neretzako;
beraz agertu arren
gu eskar txarreko,
beti daukagu gertu
dana parkatzeko,
nok euki leiken ama
bizi guztirako!

3/ Seme-alabak amai
guztia zor dautsa,
lenengo jaiotza ta
bigarren bizitza;
bere odolez eginda
damosku ugatza,
bardin maitatzen gaitu
eder, polit, motza,
osin sakona dogu
amaren biotza.

4/ Laztan gozo artian
ni azi ninduzu,
sarritan emonagaz
kontau ala mosu,
umetan eta gero
egiñagaz kasu;
gaur be zu gabe, ama,
umezurtz naukazu,
zerura ere zeugaz
eruan nagizu!

SENAR-EMAZTIAK AUTUAN

Emaz.:

Senar maitea, zer jazoten da
asarrez ibiliteko?

Gauza txarren bat egin al dautzut
ain illun begiratzeko?

Txoria baizen alaia ziñan
sendi guztiarentzako,
zu era ortan ikusitia
tamalgarri da nitzako.

Sen.:

Gure jazketa eta oitura,
euskaldun jolas garbiak,
alde batera iztera doiaz
gaur eguneko gaztiak.
Amak alabai dana azketsi,
nai dabena egin bestiak,
ori dala-ta daukadaz neure
bekozko ta asarriak.

Emaz.:

Gaurko mundua ikusi eta
ez dozu ondo oldozten,
lengo erara ez iaku iñor
jolastu eta apaintzen.
Zuk nai dozun lez baldin badabiz
txistuka dituez artzen,
alabak olan ikusi eta
ez al zara errukitzen?

Sen.:

Alabarentzat errukiorra
agertuten zara beti,
baña zuzentza egin bear da
erruki danen gañeti.
Zeuk nai dozuna egin artian
ikusten zaitut negarti,
neuk be sarritan damuz egin dot
zuri parkatzeagaiti.

Emaz.:

Jakitun antzo itz egin arren
etzagoz ondo, senarra,
zeu zara gure etxeko buru,
zeuk aginpide bakarra.
Ez dozu zetan ezer laketu
naiz entzun nire negarra,
orretarako zeuk be daukazu
gizon jokatu bearra.

Sen.:

Aita on batek ez dau egingo
ezer sendian kaltera,
au beti adi eta zur dago
etorkizunai begira.
Gure gaztiak gura badoguz
guraso onak atera,
eurak zainduten aleginduz
jokatu daigun batera.

Emaz.:

Ama beti da biotz makala
sendiko arazuetan,
aitak bear dau ardura artu
seme-alaben gauzetan.
Itzez ta egitez bardin bazabiz
gizon gauza guztietan,
zure onuak seme-alabak
zainduko dituz benetan.

Sen.:

Zure itzetan ikusten danez
zuk ezin zeinke erratu,
aitan lepora egurrak bota,
amak eskuak garbitu.
Batak bestiai lagunduteko
ez al giñan gu buztartu?
Aitak lez amak seme-alabak
bardin zaindu bear ditu.

Erabagia:

Aita ta ama biok zarie
sendian onugarriak,
errukiaren gaiñetik bete
zuzentzak ditun legiak.
Ori egiñaz ez dira galtzen
ez alaba ta semiak,
guraso onen bearra bauka
gaur gure Euskalerrriak.

BAKE OSORIK EZ

- 1/ Gauza aundia da gizonarentzat
bakean bizi izatia,
aundiagoa bakea zer dan
bear dan lez jakitia.
Ez da dirua, ez osasuna,
ez aukeran bizitia;
goi-maitasuna, barruko poza,
or dau egizko bakia.

- 2/ Itxas-untzia baketsu, arro,
doia itxaso barian,
uste izanik bakez zoruntsu
dala uraren gaiñian.
Bakeak iges egiten dautsa
ura astintzen danian,
gora ta bera balantzan dabil
gaxoa galdu-gordian.

- 3/ Lorak usaintsu, txoriak kantuz,
udabarrien ederra!
Aize biguna, eguzki gozo,
bakearen antz-ikurra.
Loren poz-ausle aize bigurri,
txoriak negu gogorra,
bake osoen amesak baña
ez da bake iraunkorra.

4/ Gizona doia mendian gora
bakea lortu gurarik,
giro ederra, bakartadia,
dana dau ixil-ixilik.
Baña gauaren itzalen bildur
biotzak ez dau bakerik,
gura dau baña ezin dau lortu
egizko bake osorik.

5/ Bake osoan aunditasunak
guztioak gaitu poztuko,
sendo ta zintzo jokatu daigun
bake au irabazteko.
Bake osoan jaube, emolle,
Aita Goikoa dalako,
zeru goietan izan ezian
beian ez dogu lortuko.

EUSKERA GATXA DALA IKASTEKO

Esaten dabe: Euskera oso
gatxa dala ikasteko.
Euskera egiz maite dabenak
ori ez dausku esango;
langille txarrak atxaki asko
beti dauka lanerako.
Batzuk beingoan ikasten dabe
ikasi nai dabelako,
beste batzuek nagiagaitik
itxi oi dabe geroko.
Gauza bat orain gogoan artu
egi aundia dalako:
Gure euskera biar bagendu
ogi zuria jateko,
aundi ta txiki, zar eta gazte,
danak leukie ikasiko.

GAUA

- 1/ Gauda benetan ederra dogu
ondo badogu ausnartzen,
gizadiari atsedeen eta
bakia dautsa eskintzen;
gauak badaki nekaturiko
gorputz aulduak sendatzen,
gaua dan lango bake-zalerik
ez da erreza aurkitzen.

- 2/ Gizona beti aundikerizko
nortasun-zalia dogu,
norbera baño geiago dana
beratu egin gura du.
Gauan illunak goiko ta beko
bardintsu artuten gaitu,
neurri bardiñaz bere ostatua
danori emoten dausku.

- 3/ Gau ixilian datozeanian
aterik ate kantari,
atsedenian durundi ori
ez al da gure pozgarri?
Gure biotzak ames gozotan
adi abesti leunari,
bake deunian gauan illuna
benetan da zoragarri.

4/ Egunez doguz gudaketarik
asarrienak ikusten,
gizaseme ta erri osoak
apurtu, erre, kiskaltzen.
Gauan itzalak geienak dituz
ixildu edo baretzen,
izaki danak gau illunari
itzala dautse artuten.

5/ Gaua zer dogun azaldu guran
bertsolari bat kantari,
bere mamiña azaldu guran
emen nabil ameslari.
Baten batzuek egingo dabe
nik baño obeto lan ori,
niretzat gaurko naikua da ta
gauon eder bat danori.

ESKUAK UTSIK

1/ Gure euskera ikusten dogu
doiala indargetuten,
gogor jokatu bearra dogu
neurriak ondo artuten.
Etorkizuna umetxoetan
ondoan dogu ikusten,
lan egin daigun aurrai euskeraz
txikitxutan erakusten.

2/ Erdera maite badozu ere
euskerai ez egin gatzik,
euskeran aurka dabillen batek
ez dauko zentzun, ez gatzik;
ondiño geiau: bere amantzat
ez lotsa ta ez biotzik;
era onetako semeak dauke
euskera eskuak utsik.

3/ Euskaldun batek maite ez badau
bere erriko izkuntza,
«Euskalduna naz» esaten bere
izan bear leuke lotsa.
Autortu daigun nun jaio eta
nungoak garan bakoitza,
ta euskalduna baldin bazara
euskerai egin laguntza.

LEKEITIO ETA AZKUE JAUNA

Lekeitio da itxas-ertzeko
erri baketsu euskalduna,
oitura garbiz eta euskera
goxoan mintzatzen dana.
Erri euskaldun baketsu ortan
jaio zan Azkue jauna,
bere amaren altzo beroan
euskera ikasi ebana.
Ama dalako txikitxuentsat
zimintarririk onena,
zorioneko erriko izkuntza
erakusten dautsan ama;
ori du amak eman legion
ugatz goxo ederrena.
Ikusi daigun zelangoa dan
euskeran aunditasuna,
ziñaldaritzat emen daukogu
Azkue jaunari izena,
bere biotza euskaldun utsa,
argi, jakintsu, sakona.
Mundu guztiak txalotutzen dau
Azkuek egin dabena,
beragan argi ikusten dogu
zer dan euskeran kemena.

SORTZEZ GARBIKO AMARI

- 1/ Baratz erdiko lili usaintsu
urrezko orriz jantzia,
zure mosuan orni goxoan
eztigai billa erlia.
Biotz barruko maitasunaren
antzikur zaran loria,
zure ezti az idatzi nai dot
Aman sorrera garbia.

- 2/ Sortzez garbia bere sorrera,
garbi dizdiraz jaiotza,
Jesus Jaunaren sorreran bardin
garbirik bere gorputza.
Garbi dalarik Semea jaio,
gero be garbi bizitza,
sortzez garbiko Ama on ori,
au da Jaunaren alatza!

- 3/ Ama Birjiña ixilik dago
munduko eztabaidakaz,
sortzez garbia dala ta eztala
dabizen zalapartakaz.
Lenengo nai dau geuk autortzea
egizko siñismenagaz,
gero Lurdesen esan dagizkun
«Sortzez garbiko Ama naz».

4/ Paris Sorbona'n Juan Duns Eskoto'k
itz onek zituan esan:
«Al izan eban, al izan eban,
beretzat egokia zan;
Jaunak nai eban, al izan eban,
eta bearreko zuan,
Ama Birjiñak nai izanda be
obenik ezin lei izan».

5/ Gauza gaitzikan baldin ez bada
gure Jaungoikoarentzat,
nola aukeratu obendun Ama
Jaunak bere Semearentzat?
Ezkutapen au illuna baizan
gizonen argiarentzat,
ainbat urtean ez autortzeko
Ama Birjiña garbitzat.

6/ Sortzez garbia zala ta etzala
mundu dana eztabaidan,
ez al du, Ama, gizadi onek
Jaunagan federik izan?
Alguztiduna bera izanda
nola egingo ez eban,
bere sabelean Jesus Jainkoa
sortu ta jaio bear bazan?

7/ Benetan Sortzez Garbia zara,
emen ez dago dudarik,
Jaunak onela nai eban eta
Zugan ez dago obenik;
gorputz ta arimez igon zenduan
zerura oso-osorik,
garbitasunen ezaugarritzat
aingeru-loraz jantzirik.

8/ Edurra baizen zuria zara,
eguzki baizen argia,
garbitasunen iturburua,
lora guztien loria.
Ama ederrik Jaunak ein badau,
Zu zara, Andra Maria,
Jaungoikoaren alatz gurena
zure Sorrera Garbia.

AUSTRALIA'RA JUAN ZIRAN GAZTEAI

- 1/ Nere biotza kantari dator
anaiak besarkatzera,
Australia'ra iges doiazan
gazteak agurtutera.
 Len be badira
 onen antzera
juanak Australia'ra,
an dirututa etorteko ustez
barrero lengo tokira.

- 2/ Australia'ra jua orduko,
laguntza eskatuteko,
Aita Kurtzekon aurrian danak
auspeztu ziran lenengo,
 Ariatzako
 Aita Kurtzeko
egiz maite dabelako;
Australia'n be aita obarik
laguntzat ez debe eukiko.

- 3/ Guraso eta anai arrebak
egin dabez besarkatu,
gero auzuak eta lagunak
maite miñetan agurtu.
 Zintzo jarraitu
 eta aberastu,
zeuen erriaz ez aztu;
Australia'ko lur-alde orretan
beti euskaldun jokatu.

4/ Udabarriak lora politak
egiten dituz ekarri,
gaztea barriz lora artean
beti dabil ameslari.

Gazte orreri
lorak urduri
eingo iakezan etorri,
azken agurra ixil-ixilik
eingo eutsen alkarri.

5/ Len Australia'n bizi zarien
euskaldun gure anaiak,
emengo barri emongotzue
orain doiazan gaztiak.

Orko urtiak
ezin obiak,
osasun diruz betiak,
biotz-biotzez opa dautzuez
Enbeita bertsolariak.

MARTI-ZOZO KANTARIA



- 1/ Negu ankerrak billozten dituz
zelaiak eta baratzak,
soiñeko barik jarten ditula
aran, baso ta zugatzak;
baña Martiko zozo kantari
zoli bizkorren abotsak
berbiztu eta alaitzen dituz
uda-zalien biotzak.

- 2/ Kukuak kuku dagianeko
Marti-zozoa kantari,
udabarriko bizitza barri
agertu nairik danori;
berbizkundien asierako
deia dala esan legi,
egorik bako zozo listoak
baño zigurraua da ori.
- 3/ Aitona eta amona zarrak
negu gorrian bildurrez,
Marti-zozoen abestiakaz
gozoz eiten dabe ames;
diñoelarik: «Zozo bizkor oi
abestuten asi zaitez!»
Marti-zozoen lagun diranak
negu-zaliak ez direz.
- 4/ Marti-zozotxu, piku gorrie,
zure abestiak entzunik,
baserri, uri, mendi ta zelai
daukazuz pozez beterik;
zeure betiko txorrotxioa
ez dogu gura besterik,
zu bizi zaren artian ez dau
kanpo-txorien bearrik.

1/ Belbil batekin nabil
aspaldi guztian,
eta aguazil bat
beti dot jarraian;
sarritan geratu nau
kalien erdian,
zer nai dun ezagun dau
bere aurpegian.

2/ Aguazil au dabil
nigaitik ekiten:
karnetik ez dodala
bidan lez ibilten;
gaur ere etorri iat
atzetik birriten,
nire kontura nai dau
juan bazkariten.

3/ Karneta ondo daukat
nausiak emanda,
aguazillak ezetz,
or dogu demanda;
nai badu jakingo dau
lekura juanda,
ez iñoren kontura
bazkaria janda.

4/ Eskuak zabal eta
guante zuriak,
bajuak arrapatzen
daukaz maliziak;
antza eskasak dira
bere irabaziak,
tranpara kentzen ditu
multarik erdiak.

5/ Dama gazterik bator
auto ederrakin,
nasai geratuko da
izketan eurakin;
ez da konturatuko
atzekuarekin,
gustora egoten da
ezpan-gorriakin.

6/ Korneta jo ezker
orrua eiten du,
«*¡La ley del silencio!*»
laster esaten du;
ezker eta eskubi
ezin ditu zaindu,
bear ez daben askok
ogia jaten du.

7/ Turuta joten bada
bizkorra mutilla,
baña lekua zaintzen
ez da ain abilla;
obeto ez badabil
gure aguazilla,
asi bearko dogu
barriaren billa.

8/ Barria bator ere
kontuz bada-ezpadan,
multarik baldin bator
ez asi demandan;
indarrez justizia
zelan egiten dan,
baztertuko zaitue
lenengo ostikadan.

9/ Gizon zintzua beti
zuzen eta ernai,
etxian ta kalian,
lanian ere bai;
guzurragaz polito
bizi leike nunai,
egiak daukan arte
toki danetan jai.

ARRATE IXILIK


1/ Bakoitzak dauka bere barruan
biotzan jaube dan dama,
maitasun orrek bere biotza
maiteagana darama.
Arraten bada izar eder bat,
aundia da bere fama,
Euskalerrriak maitatzen daben
Arrateko gure Ama,
soñez ez bada kantu gozotan
ondora sarri narama.

2/ Garai batean Arrateko Ama
eberdiko amabietan
irradi-bidez asten zanian
kantuz eta bertsoetan,
pozez beterik jarten genduzan
geure bazkal-orduetan;
erri-izparrak zabaltzen zitun
zeaztasun guztietan,
alaitasuna besterik etzan
euskaldun sukaldietan.

3/ Aspalditxuan ixilik dago
lutuz jantzirik Arrate,
bere kantuak ixildu ziran
ta ez dakigu noiz arte.
Baña Amaren oiartzun-otsak
nori egin leio kalte,
bere biotzak neurri bardiñaz
guztiok bagaituz maite?
Gaizkille, zu be maite zaitu ta
Amagaz oroitu zaite.

4/ Arrateko Ama baldin badogu
Euskalerriko zaindari,
bearrezko da itz egitea
Amak bere erriari.
Egia beti izan daitela
bizi-bideko gidari,
ejenplu ona zabaldu daion
bere entzule danari,
txarto egiñaz damutu eta
ateak edei Amari.

ORBAN BAKO LORE



1/ Zer dakastazu, maite,
biotzeko lore?
Zuri ta eder zatoz,
ixil eta bare;
biotz maite minduaz
naukazu begire,
zelan ete zatozan
ain eder zelaire.

2/ Zure musu zurian
eguzkiak diz-diz,
ezti billa erliak
jolasian aldiz;
apain agertzen zara
zelai, baso, mendiz,
aizea eder zure
usai gozo aundiz.

3/ Olerkiaren muña
maitalien ames;
biak maite-minduak,
ezin ase lorez.
Txoria ez da eder
ez badago lumez,
maitasunik bere ez
bear dan lez umez.

4/ Dudako loria da
udazkenekua,
eguzki, aize zakar
maiz arturikua.
Zu zagoz mardul, lirain,
udabarrikua,
baiña jaubiarentzat
ardura aundikua.

5/ Lora gazte maitia,
ain zagoz dotore,
zuri, garbi ta eder,
biotzen endore;
zuri begira dagoz
ainbeste kolore,
beti izan zakidaz
orban bako lore.

(1962'eko Lotazillan)
(Oleri, 1967)

SORGIÑA ETA MUTIL SENDUA

Sorgiñak:

Egun argitan lo egiten dot,
baña gaba da neuria;
Siñistu ez arren, askok artzen dau
sorgiñaren arduria.

Arro samarrak nire lepotik
dauke barre egin-guria,
baiña sorgiñan gomuta onek
kentzen dautse loguria.

Mutillak:

Egun guztian lo zorroan ta
gaba zeuria bakarrik;
nik gau orretan lo egiten dot,
ez badot ibil bearrik.

Noizik noizera juanagaitik
gaur arte ez dot okerrik,
niregan ezta sekulan sortu
atso sorgiñen bildurrik.

Sorgiñak:

Atzo ondiño izan zenduzan
une larri ta estuak,
zure aurrian ikusiagaz
sorgin zarraren saltuak.
Tentau zenduzan Ama Karmengo,
zeruko santa-santuak;
on aundirikan ez eutzun egin
atzo gaubeko sustuak.

Mutillak:

Zure saltuak ez dira izango
orrenbesteko altsuak,
zure beso ta txanka me orrek
ezin izan indartsuak;
gau beranduan egiñagaitik
ikaratzeko zantzuak,
zer egin leike egun argitan
ibilli ezin dan atsuak?

Sorgiñak:

Bada-ezpadan ez nagizula
emen salatu larregi,
atzo gaubian zetan ez dala
parkatu neutzun geiegi.
Entzun egizuz sorgin zar onen
bildurgarrizko bi egi:
daukazun dana kenduko dautzut
eta kakuan eskegi.

Mutillak:

Zure irrintzi eta goguak
eragin dauste gogaitu,
alakon baten makilla batatz
egingo zaitut garbitu;
zure azur ta azal zimelez
txakurra eging'ot loditu,
orduan zure sorginkeriak
egingo dira amaitu.

Aita zarrak azkena:

Sorgin-kontuan asko entzun dot
txikitxutatik onaiño,
baiña olango sorgin-klaserik
ez dot ikusi ondiño.
Mundu kaskarrai begiratuta
aita zar onek au diño:
Gaur bere sorgin geiago dala
pagatzaille onak baiño.

(1964'eko Dagonilla)
(Olerti, 1967)

BASERRI UTS GAXOARI

- 1/ Baserritxua, itun naukazu
zu orrela ikusirik:
bakartadean itxi zaitue,
or zagoz sasiz jantzirik.
Zugaz mingañez oroitzen dira
baña ez dau errukirik,
eriotzia laster daukazu
ez bada laguntza obarik.

- 2/ Zure semiak kaikuarekin
or dabiz mendi-plazetan,
baserri alde didar egiñaz
azaleko amesetan.
Baña gizona ez da ezautzen
bere soiñeko praketan,
ez dira elduko zure etxaurreko
sasi sastrakak libretan.

- 3/ Garai batean zuk landu zendun
bizi-bideko ortua,
azia erein, landarak jarri
eta zabaldu frutua.
Euskalerrriak ezer badauka
zugandik dauka artua,
eta zergaitik itxi zaitue
ainbestian baztertua?

4/ Baserri baten jaio nintzan ni
Lore-illaren ogeian,
Uzparitxako auzonetxuan,
bertsolarien kabian.
Baserri baten gaur be bizi naiz
poz-atsegiñen artian,
azken arnasa ere nai nuke
emon nere baserrian.

IMANOL ANAI GAZTIENARI,
BENEZUELA'N AMASEI URTE EGIÑARI

1/ Ameriketan dogu
anai gaztiena,
amasei bat urtean
andik daguana.
Entzutia daukagu
ondo bizi dana,
ez da guzurra izango
esaten dabena.

2/ Ameriketan ondo
bizi ez balitza,
jaioterriaz geiau
gomutauko litza.
Iru aldiz emon dau
etorteko itza,
oraiñarte danetan
emon dausku utsa.

3/ «Laister noia orrantza
—sarritan dirausku—
alkar besarkatzeko
geure soin ta esku».
Promesak aundi baña
betetan ez dausku,
gibel aundikua dok
gure anai Praisku.

4/ Ariatzako bromak
damotsiez penak:
emengo txarri-boda,
murtzille bigunak,
eta lagun arteko
pozezko egunak;
orrek arrapatzen dauz
lekuan dagonak.

5/ Solomo eta pernil
dagoz zenbat gura,
lukainkak ama zarrak
egiñak gustora.
Baña, anai, berandu
etorten bazara,
esandako guztiak
amaituko dira.

6/ Epailan zatozala
azkenengo barri,
izpar ori, Imanol,
danontzat pozgarri;
orain artian legez
amesen egarri
ez al da igaroko
aurtengo udabarri.

7/ Lukainka eta pernil
etxekoak dozak,
irabaziak barriz
lengoak eztozak;
belbillak aurrezian
geienak iaukozak,
lenaukuak ez dira
gaur emengo gauzak.

8/ Igande ta jaietan,
maiorazko antzez,
batzuk motorrez eta
bestiak belbillez;
traje irrikildunak,
erropa tergalez,
txakurrak eurak ere
ez dabiz lenau lez.

9/ Diru apur bat eiten
Amerikerantza,
baña lanagaz iñor
ez da aberatsa.
Lan apur bat egiñaz
geu be ondo gabiltza,
ondo bizi nai badok
etorri onantza.

(1966)

LENGO BIZITZA ETA GAURKUA

- 1/ Lengo bizitzak eta gaurkuak
alde aundia ei dauke,
lenago neke, bizi-eziña,
gaur barriz ondo ta bake.
Alde bi onek ikusi eta
nik auxe esan negike:
lenago karu gendun guzurra
gaur dogula erdi merke.

- 2/ Lengo bizitzan lan egin eta
bizi baziran justuan,
lanetik gaur be sobrarik ez da
ibiliteko gastuan.
Kanpotik oso itxura ederra,
barruz bizitza estuan,
gaur legez len be txuleta onak
eukanak jaten zituan.

- 3/ Lendikan ona bizimodua
oso aldakorra dator:
len oñez eta gaur edozeñek
daukaz belbil eta motor.
Lenago tresna orrek zituna
genduan erriko dator,
baña dendetan etzan ikusten
gaur eguneko beste zor.

4/ Len talua ta gaztañak janda
lasai gendun bizitzia,
gaur baño ardura gitxiaguaz
ibilten gendun etxia.
Orain lan gabe bete nai dogu
gilborra eta boltsia,
arrokeria badago baña
falta da kontzientzia.

5/ Esaten dabe gaur daguala
danerako erreztasuna,
ez dot ikusten ori bakarrik
danik gure ondasuna.
Barruko poza eta bakea,
or dau aberastasuna,
ori lortzeko bearreko da
gizonen askatasuna.



Arregi, Lopategi, Mugartegi ta Balendin Enbeita
bertsolariak.

GAURKO NESKATXAK

(Erdaldun neskatxa bat, bere minifalda —gona-motz— laburragaz, euskaldun mutil eldu bategana doa, erriko jaiak nun egiten diran itaunka. Mutillak, aren taiua ikusita, bertsoz erantzuten dautso).

- 1/ Gazte, ez dago emendik urrun
zuk deseaten dozuna;
kilometro bat bakarrik dago
emendik zuzen-zuzena.
Zeu ikusita, bai al dakizu
pentsetan jarri nozuna,
jaian atxakiz nai ete dozun
bideko laguntasuna?

- 2/ Bakarrik naitau dauala eta
ezezkoa daust emoten;
ni barriz pozik ainbat ariñen
ondotik aldendu daiten.
Onen antzeko txori nabarrak
noizbaiten dira ikusten,
melena eta bizardunakin
gustora dira ibiltzen.

3/ Gorputza dauka goitik beraiño
oso egoki egiña,
baiña badauka andra on baten
duintasunaren premiña.
Maitasunezko biotzen orde
baden maitekeri-griña,
askoz obeto gure erriko
jaira juango ez baziña.

4/ Gaztea zara, gorputzez sendo,
baiña zentzunez txirua,
olgantzan eta libertadian
daukazu zeure burua;
zeure izatez gaurkoa zara,
ez dozu ikusten gerua,
olanguari euskaldun askok
deitzen dautsagu erua.

5/ Gauza ona da erriko jaiak
pozik, alai ospatzia,
baiña ez gero, libre dala-ta,
oitura onak galtzia.
Jolasian da jazkeran bardin
euki bear da lotsia,
gura badogu Euskalerriko
oitura onak zaintzia.

(*Príncipe de Viana*, X/1972)

TXISTULARIA

- 1/ Euskalerrian doguz
ainbat txistulari,
euren txistuz alaitzen
baserri ta uri.
Zarrak poztuten dituz,
gazteak dantzari,
eskarrak gure euskaldun
txistulariari.

- 2/ Euskaldunen txistuai
ondo begiratu,
iru zulo besterik
beragan ez ditu.
Au ikusi ta asko
oi dira arritu,
zelan jotzen dituan
ainbat kontziertu.

- 3/ Txistularia gogoz
asten bada joten,
gazteak dantzan laster
eingo dabe urten.
Atso ta agurak be
ditu bizkortuten,
txistu ta tanboliñak
nor ez dau poztuten?

4/ Txistulari maitea,
etzaitez ixildu,
mendi, baserri, kale
danian zabaldu.
Zure izate ederra
ez daitela galdu,
txistuz alaitu danok
eta garbi zaindu.

(*Olerti*, 1967)

ITXAROPENA BEARREKO
DAU GIZONAK
BIZI IZATEKO

- 1/ Itxaropena nundik datorren
ausnartzen ez da nekeza:
Goikoak bere eskuz emona,
au dudarik bako gauza.
Gizonak badau ez-bearren bat
sortuten iako tristeza,
itxaropenaz oroitu bedi
eta or dauka arnasa.

- 2/ Itxaropenak laguntzen dauku
bizitzan gauza askotan,
itxaropenak lotuten gaitu
bear ez diran gauzetan.
Eruapena emoten dauku
geure estura-aldietan,
itxaropenik bako bizitza
gauza utsa da benetan.

- 3/ Filosofian barruan dago
sakondu ezin dan arima,
itxaropena orixe dala
esaterañño narama.
Uste dau askok gizona dala
mundu-bizitzaren lema,
baña badago itxaropen bat
babesten gaituzan ama.

4/ Sinesmena ta itxaropena
zuzter bateko arbola,
iturri baten emaitzak dira,
Jainkoa bere yabola.
Gizonak berak sortu baeban
agortuko zan beiñola,
Alguztidunak sortua dala
ezin ukatu iñola.

UDABARRIA, ONGI ETORRIA!

- 1/ Billozik ziran mendi-zelaiak
dakustaz loraz jantzirik,
mututurikan ziran txoriak
kantuz ezin asperturik;
aitona eta amona zarra
poza ezin sinisturik;
alaitasuna, berbizkundia,
ez da ikusten besterik,
urte guztiak ez du izango
udabarria langorik.

- 2/ Eiztari onak eskatzen dabe
eurentzat negu gorria,
aberats askok udia nai dau,
au da euren pozgarria;
baserritarrak udazkenian
lan egiñen iturria;
gusto guztiak bardin ez dira,
au da nire egarria:
bakoitzak gura dabena bada,
niretzat udabarria!

ARROSPIDE OSALARIA ZANARI

1/ Frutu onen emoille
genduan zugaitzak,
danentzako zituan
bardin bere emaitzak;
sasoirik onenian
bere eriotzak
tamalez jarri gaitu
txiro ta aberatsak.

2/ Osalari lez aundi,
geiago gizona,
borondatez indartsu,
maitasun sakona;
neurri bako ongille,
apal ta zuzena,
ezin leike azaldu
bere nortasuna.

3/ Baserri eta kale
mar-mar bardiña da,
tamalez askok diño:
«Arrospide il da!
Amaikatxu mesede
egiñik juan da!
Bera lango gizon bat
izango ete da?»

4/ Itxi dozuz munduko
zeure arazuak,
emazte, sendi, lagun,
senide, auzuak;
zeruetan daukazuz,
zabalik besuak,
aurretik juan ziran
zeure gurasuak.

5/ Agur, Jon Arrospide,
agur, agur t'erdi!
Zeru goietan Jaunak
atsedendu bedi!
Irakatsi eder bat
badogu zugandi:
beti zaindu dozula
egian alderdi.

IYURRETA'N

- 1/ Pozgarria da gaurko egunez
Iurretara etortia,
gogoratuaz aurreko zarren
abesti zoragarria:
«Aita San Migel Iyorretako,
zeru altuko loria...»
Aurreku dantzan oroigarritzat
asaba zarrak jarria,
oitura onek zaintzeko danok
artu daigun arduria.

- 2/ Tanbolin-txistu alai gozoan
lenago ziran jolasten,
gaur eguneko dantza loturik
ez eben ontzat artutzen;
ondiño geiau: pekatu-pean
jolas au eben zigortzen.
Orain lotua ontzat artuta
garbiak dabiz baztertzen,
gaurko gazteak, ikusten danez,
geiago dabe agintzen.

BIZITZA BARRI

- 1/ Udabarria gozo biguna,
guztiok pozik jarten gaituna!
Mendi-zelaiak loratsu jantzi,
txoriak bardin pozez kantari;
 bizitza barri
udabarriak oi dau ekarri,
geure neke ta lanen pozgarri.

- 2/ Billozik ziran mendi-zelaiak,
udabarrian jantzirik danak;
eta txoriak, aundi ta txiki,
pozez zoratzen danak kantari;
 baserrietan
lugiñak bizkor euren lanetan,
azientzako lurak gertetan.

- 3/ Zugaztietan txoriak pozez
euren umeak aziten dabez;
zein geiagoka maitasunean
dabil baxotxa bere lanean
 pozez beterik,
euren sendiaz maite-maiterik,
zorioneko direlarik.

4/ Mundu onetako geure bizitzan
geienok gabiz oker pentsetan:
bakez ta pozez bizi nai dogu,
naiz-ta bizitzan oker jokatu,
 baiña alperrik!
Auzoarentzat maitasun barik
ez dogu eukiko iñoiz bakerik.

5/ Zorioneko nai dogu izan?
Txoriak legez ibil gaitezan.
Alkar arteko ikusi eziñak
dakaz munduko arantza miñak.
 Bakez ta pozez
bizi nai dogu? Txoriak legez
txarrik ez egin besteren kaltez.

GAZTE-DENPORA
EZ DA ETORRIKO

- 1/ Udabarriak ditu
lorak zabalduko,
eta txoriak pozik
dabe abestuko;
baña gazte denpora
ez da etorriko,
udabarriak ere
ez dau ekarriko.

- 2/ Gorputza sendo eta
begiak barrezka,
neugaz maite-minduta
begira ainbat neska;
lora danak usaintsu,
amesak gañezka,
gogamen asko barik
geroaren kezka.

- 3/ Baña urtiak doiaz
ordu batzuk legez,
eta amesak utsik
geratuten direz;
ainbeste maite-mindu
zirianak nigez,
orain barre eginda
albotikan iges.

4/ Amaitu ziran maite
ninduen bezuzak,
eta ainbeste lorai
eindako promesak;
alperrik gogoratu
gaztetako gauzak,
lengo laztanen orde
orain kalabazak.

5/ Orain mutilzartuta
aurpegia tximur,
indarrak beruntz eta
pausua oso labur;
gaztiakin ibilten
lotsa eta bildur,
agur gazte denpora,
betirako agur!

GARAI'KO DANTZARIAI

- 1/ Laño illunak dagozan arren
egiten dausku aterri,
euskal usaiñak txoko ontara
ainbeste gaitu ekarri:
emengo dantza eta folklore
oso dira txalogarri,
zeren eskarrak emon daukagu
jai onen egile orri,
dantzari onak ikusiteko
Garaiko plazara etorri.

- 2/ Jai eder onek ez daijala emon
gaurkoaz bere amaia,
nik ikusten det aurreratua
datorrela gaztedia;
dantza eder onek Garaiko errian
lendik dauke jatorria,
nai doguna da zabaldua
emonaz indar berria,
au egiñagaz asetuko da
erri baten egarria.

3/ Zar eta gazte baturik gagoz,
kantari bertsolaria,
eneuke gura neure kantuz
iñori min egitia;
bakoitzak berak zaindu bear dau
gizontasunen neurria,
besten gauzari bakean itxi,
zaindu bakoitzak beria,
au egiñagaz zainduko doguz
euskera ta Euskalerrria.

(Garai'n, 1970'gko apirilla)

KONTZIENTZI USTELA

- 1/ Gauan erdian ames gogorrez
urratu bear gorputza,
erdi itxarrik izerdi larriz
taupada baten biotza.
Buruja jaso, ez dago inor
inguruan, dana utsa;
arrokerizko itz gogorretan
agiñai kirrizka-otsa.

- 2/ Arrokerizko aundi-gurian
kontzientzi ustel bat lotan,
baña norbaitek zirikatzen dau
amesen bidez barnetan.
Min zorrotz ori kenduko daben
indarrik ez dau topetan,
naiz-ta agiñai kirrizk eragin
amurruzko indarretan.

- 3/ Alperrik dira ezitasunak,
alperrik gure indarra,
kontzientzi ontan zerbait badago
ondo ausnartu bearra.
Geure egintzak dirala bide
jarri badogu negarra,
ori da geure barne ixillean
zirikatzen gaitun arra.

4/ Barruko kezka ori kentzeko
ez al da ezer egongo?
Kontzientzi ori garbitu arte
ar ori ezta juango.
Eta zer egin? Jarri doguzan
negarrak kendu lenengo,
eta orduan erri batentzat
gizonak gara izango.

(1971, Urtarrilla)

ZAR-GAZTEAK

- 1/ Zugatz gaztien adar sendoak
aizearen balantzetan,
ondoko zarren adar sendoak
beratzen dituz golpetan,
goitik beraño mutilduagaz
jarri arte azurretan,
ainbeste frutu eder emonak
bere sasoiko urtetan.

- 2/ Gazteak ez dau ezik ikusten,
zarrak ez dauka indarririk;
bere kemenak amaitzen doiaz,
ezin jaso dau adarririk;
bere sasoiari emongo eban
al eban frutu ederrik,
baña gaztea gaurkua da ta
ez daki lengo barririk.

- 3/ Zugatz zar bati naiz-ta adarrak
asi arren igartuten,
ekaitz artian ibilia da
bere frutuak emoten;
ekaitzik izan ez daun gazteak
ori ez dabe ikusten,
baña geroak urtien buruz
asko dausku erakusten.

4/ Arbola zarrak emon ez baleu
geroko kimu barririk,
gaurko gazteak etzun izango
bear aiñako fruturik;
bakoitzak bere sasoiari ekin,
ez izan arrokeririk,
gizona oso utsa dalako
bestien laguntza barik.

(*Príncipe de Viana*, 1972)

DIRUA, DANON ERREGE

- 1/ Dirua dogu danon errege,
ez dauka ate itxirik,
ez da agertu diruarekin
edegi ezin dan aterik;
giza-bizitzan adar guztiak
diruak daukaz loturik;
bildurrik gabe lasai bizi da,
ez dauka areriorik.

- 2/ Esaten dabe diruz gañetik
maitasuna daguala,
maitasun bat zan, Kristo zan bera,
kurutz batian il zala;
maite ginduzan ezaugarritzat
naiz-ta ixuri odola,
ikusten dogu diruagaitik
Judasek saldu ebala.

- 3/ Gure artian maitasun-itzez
sarritan gara laztantzen,
maitasun orren ezaugarria
egipenak dau agertzen;
txiruarentzat maitasun otza,
diruak gaituz berotzen,
urregorrizko maitasun-itzak
gorroto daki bigurtzen.

4/ Maitasuna be indartsua da,
baditu ainbat mirabe,
«Nere maitia ez dot utziko!»
sarritan esango dabe;
baña diruak lotuten gaitu
kontzentzi bildurrik gabe;
oker naiz zuzen, agertuko da
munduko jaun eta jabe.

5/ Dirua berez ez da izango
zorion danen zuztarra,
baña badauka aparteko bat
neurtu ezin dan indarra;
erretasunez eskuratzen dauz
eskubi eta eskarra,
guzurra egi bigurtzen daki
eta egia guzurra.

6/ Dirua oso indartsua da,
astintzen dauz inguruak;
tentelak ere bizkortzen ditu,
bizkorrak jarri eruak;
areriorik ez dauka iñun,
beti pausu seguruak;
goiko ta beko, esker ta eskubi
dantzan jarten dauz diruak.

7/ Dirua dogu injustizia
eta dirua justizi,
goiko ta beko erreztasunez
egiten gaituz erosi;
zuzentasuna gura badozu
diruen kontra ez asi,
au oso errez aldeztuko da,
bera da juez nagusi.

BASERRITARRAK KEJAZ

- 1/ Egun osoan lanian eta
ondiño lanak aurrera,
baserritarren lanbide onek
ez dakit nun daun barrera;
eta kalian izaten dogu
oso eskasa arrera,
giza-legean ez al da sartzen
baserritarren karrera?

- 2/ Ederto baten bizi dirala,
diño, baserritarrak;
ori diñonak ez daki ondo
jazoten diran okerrak;
ekaitz txar batek ondatu leikez
urte guztiko bearrak,
au zuzentzeko iñor ez dago,
alperrik egin negarrak.

- 3/ Gugaz dabiltzan arerio bi
daukaguz diferentiak:
batzuek dira pentsu-saltzaille,
bigarrenak tratantiak.
Zer balio dau baserritarren
gauzak ondo saldukiak,
bitartekuak kentzen badauskuz
zekorren iru partiak?

4/ Zortzi pezeta ta errial bat
esnearen salneurria,
zortzi ta erdi eta geiago
pentsuazko janaria.
Guk ezin dogu geuria jaso,
eurak nai daben guztia;
era onetan jasoko dogu
bean dagon baserria!

(Príncipe de Viana, IX, 1972)

MAITE MINDUA

1/ Aldi luzean maitatzen dodan
lora batek nauka miñez,
geientsuetan biotzez eta
beste batzuetan soiñez.
Maite dodana ezin neugandu,
orrek jarten nau samiñez;
geroan bere lortuko badot
ondiñokarren jakiñ ez.

2/ Lore arteko usain gozoko
ames gozoen baratza,
bizibideko laztasunean
sentitzen ez dan arantza;
eskuratu nai, beti igesi,
urratu bear biotza,
era onetan bizitekotan
oba sortu ez banintza.

3/ Euskalerriko baratz urdiñak
baditu ainbeste lora,
danen artean begiko zaitut,
besterikan ez dot gura.
Pozik nintzake baneki ondo
zelan ekarri eskura,
ala zu barik bizi izateko
eldu ete naz mundura?

4/ Baratz erdiko lora urdiña,
nai zaitut nere onduan,
zure biotzak maite nagilla
neureak zaitun moduan.
Abegi onez artu nagizu
zugana noian orduan,
zure laguntza bearrezko dot
bizi izateko munduan.

(Príncipe de Viana, IV, 1973)

AMA EUSKERA

- 1/ Ama on batek sendian dauko
ardurazko zeregiña,
dakialako bere aurtxoak
daukela aman premiña;
ikusten badau ezin dabela
lortu sendi-atsegiña,
oso mingotza izan bear dau
amagan dagon samiña.

- 2/ Ixiltasunez eroango dauz
sendiko lora arantzak;
aman magalak asetzen ditu
seme-alaben biotzak;
amagan dagoz famili baten
maitasun-bakezko giltzak,
errukarriak izaten dira
ama bako umezurtzak.

- 3/ Erri bat daukat, bere ama naz,
semeak ditut ugari;
amak maite dauz, baiña semeak
igeska dabiz amari.
Ardura aundiz begira nago
euren etorkizunari;
ama galtzean zein izango dan
nere umezurtzen gidari.

4/ Zuek zarie nire jarraiko
ames gozoen baratza;
ondo badoia, zuen frutuak
indartuko dau emaitza.
Batasunean dago indarra,
indarra dogu garaitza;
euskerearen batasuna da
eusko lurraren bizitza.

5/ Ene semeok, batu zaiteze,
oroitu zeuen amagaz;
niregan beti izangozue
erri-bizitzaren arnas.
Ni iltzen banaz, ez didar egin,
ez da erantzunik nigaz:
semien erruz neure lurrean
betiko ixilduko naz.

(Príncipe de Viana, III, 1973)

ESKUBIDE BARDIÑA

- 1/ «Aintza goietan, bakea emen»
Belengo portal zarrian;
artega eta egon-eziña
onek sortu dau errian;
nausi diranak beste erregerik
ez dabe gura lurrian,
gauza bardiña jazoten iaku
bi millagarren urtian.

- 2/ Kontzentzi garbiz asi gaitezan
geure barrenak astintzen,
eta gizonen eskubideak
ardura aundiz ausnartzen.
Kristo bakarrik etzan etorri
mundura arimak salbatzen,
etorri iakun gizonak eta
erri lotuak askatzen.

- 3/ Beartsuaren bizi latzagaz
ez gendun ezer jakin nai,
naiz-ta lanean aulduta ikusi
guk barriz geienetan jai;
baiña erria gura badogu
batasun batian anai,
ogi sobria emon daiogun
bear izana daukanai.

4/ Gizonak dauka mundu-bizitzak
bearrezko dauan gatza,
eta bakoitzai bere neurrian
bardin emon bear dautsa;
danok daukagu zaindu bearra
giza-bizitzen ardatza,
bardintasunez bizi izateko
jaioa gara bakoitza.

(Príncipe ae Viana, XI-XII/1972)

XABIER'EKO PRANTZISKO DEUNA

- 1/ Naparroako Xabierreko
familiko gazteena,
soin eta biotz naparra ziñan,
zuztarretik euskalduna;
Japoneraño eruan zendun
napar izkuntza maitena,
eta euskeraz emon zenduan
Japonen zeure azkena.

- 2/ Siñismenaren aide emona
Japonen zeure bizia,
gaur zure errian euskera dago
eriotzara jausia;
eta errian aurrera doia
bere kontrako auzia,
bada, zergaitik deitzen dautzue
napartarraren nausia?

- 3/ Zure guraso, anai-arrebak,
Naparroako lurrian
euskera eta errian alde
ziran guda gogorrian;
gaur Xabierren ez da euskerarik,
ez Iruñatik urrian,
zenbatek maite dabe Xabier
benetan bere errian?

4/ Jaiotzaz eta izatez bardin
Xabier euskalduna zan,
Xabier egiz maite badogu
euskaldun izan gaitezan;
egizko euskaldun ez bagabiltza
etxe, plaza ta eleizan,
gure Xabier maite dogula
guzurrik ez daigun esan.

(1972/XII/7)

GABONAK DIRALA-TA



- 1/ Belengo oiartzuna
urte guztietan:
Bakea eta poza
bego sendietan!
Baña bakerik ez da
mundu zabaletan,
bake orde z negarra
sendi geienetan.

- 2/ Belengo seaskatik
maitasunen eske,
eta mundu guztia
alkarraz burruke;
bakoitzentzat berea
emongo bageunke,
zorioneko Gabon
izango genduke.
- 3/ Bakea nai badogu
ez iñor zapaldu,
menpean daganari
jasoten lagundu;
baña gizona ez da
malla ortara eldu,
naiago dau munduan
indarrez agindu.
- 4/ Alperrik dira gure
mingañezko lanak,
egintzaz ez bagara
egizko gizonak;
laguntza bearra dau
menpean dagonak,
onentzat ere bardin
dituguz Gabonak.

5/ Gabon-egunak dira,
oroitu bakoitza,
poztu samiñez diran
anaien biotza;
erriak izan daian
biarko bizitza,
bearrekoa dabe
gaur gure laguntza.

6/ Belengo estalpean
Jesus zelan zegon,
arek esandakoak
aztuta ez egon;
bidezko txiruari
ostatua emon,
anaiak dira eta
anaiak lez yabon.

(1972)

IGOR IL ZANEKOAK

1/ Begiak malkoz, soña samiñez,
kantua nere otoitza,
bertso-kantuan poztu al banei
ama minduen biotza.
Senarra eta aingerutxo bi,
orra iru eriotza,
amari onek kenduten dautsa
lengo pozezko bizitza.

2/ Aingerutxo bi goian egazka
aita dabela erdian,
ama bateri kendutakoak
bata besteen jarraian.
Goian zoruntsu izan legikez
atsegin-lorategian,
baiña ama itun, lorak galduta,
daukagu negu gorrian.

3/ Goian aitagaz aingerutxo bi,
beian amagaz beste bi,
pozez bizi zan seikote ori
betiko egin da bi erdi.
Zorioneko pozik izan lei
goian irukote ori,
beian poz ori nok emon leio
ama naigabetuari?

4/ Guztion Aita zarala, Jauna,
sinismenak du autortzen,
baiña sarritan dudak daukaguz,
neuria dautzut agertzen:
Batzuk aukeran, nai daben eran,
beste batzuek sufritzen,
guztion Aita izanda, Jauna,
zergaitik gozuz banantzen?

5/ Aman biotza zauritutzen da
seme bat galdu orduan,
senar ta seme galdu dituna
errukarri da munduan.
Guk ez dakigu Jaunaren naia
zein bidetatikan duan,
iru desgrazi dituan ama,
Jauna, izan akorduan.

(1973/1/7)

EGIÑAK EGIN ETA OR KONPON!

- 1/ Zetan iatordaz nere gogora
lengo jazokun itunak,
lenez gaiñera nere biotza
bardin zauritzen dabenak?
Egiñak egin eta bakean
bizi gura dau gizonak,
baiña bakerik ezin dau lortu
kezkaz daguan barrenak.

- 2/ Udabarriko txorikumea
egaz asten dan antzera,
ames gozotan juaten nintzan
lora billa baratzera;
kolore danak sartzen iatazan
bardin nere biotzera,
danak neuriak ziralakuan
eskuak utsik etxera.

- 3/ Egiñak egin eta or konpon
garai bateko bizitza,
gorputza sendo, amesak aundi,
ez bildur eta ez lotsa;
atsegin loraz asetu ezin
narrasturikan gorputza,
orain barruko bakea gura
baiña kezkati biotza.

4/ Aita Goikoa, zuk bai dakizu
parkatzen damutuari,
azken orduan parkatu zeuntsan
kurutzeko lapurrari;
zeure eskua luzatu, Jesus,
damuz daguan oneri,
nigaitik bardin egin zenduan:
zeure odola ixuri.

(1973)

EZKONTZA

(*Muxika-Ariatza'ko Kurutz Deunaren
eleizan, 1973/11/24'an*)

- 1/ Aita Kurtzekon aurrian gagoz
ezkondu barrien adi,
eleiza onek udabarriko
baratz eder bat dirudi;
bikote orrek indartu daian
euskal sendian alderdi,
ezkon barrien buztarri ori
Jainkoak onetsi bedi.

- 2/ Len bi ziñaten, bat egin zare,
zuzter bateko arbola;
buztarri ori ezin legike
legez apurtu iñola;
euskal fedean dibortzioa
gaizki artuten dabela,
bikote orrek gogoan izan
euskaldunak zariela.

- 3/ Biok zarie sasoiko lora,
zoiaze frutu-bidera,
Euskalerrria urduri dago
zuen frutuai begira;
euskal fedea eta euskera
indartuteko badira,
orduante bai, zuen frutuak
ederrak izango dira.

4/ Batak-bestien ez-bearretan
biok alkarri lagundu,
aurrik badator euskal fedean
azi eta ondo zaindu;
guraso zarrai itzala izan,
ondo zaintzen alegindu,
orretarako egiten zare
kontzentzi baten ezkondu.

ARRO AUNDIA ETA ARRO APALA

- 1/ Arro aundia ezaguna da,
baiña ez arro apala;
disimuluan azpi-janetan
ez da izaten motela;
goian dagonai ondo igortzi
eta zapaldu makala,
erri xeakin baso-erdika,
baiña beretzat upela.

- 2/ Arro apala ezagutzeko
argi ibili bear da:
beso zabalik artuko zaitu
«Kaixio, mutil!» esanda;
bada-ezpadan kontuz agurtu
pausuak ondo emanda,
orrelangoak gozatzen dute
bestien lepotik janda.

- 3/ Arro aundiai arro apalak
ulie artuko dautso,
azeria lez lagun artera
agertuko iaku mantso;
izketan bildots otxana dogu
baiña egikeraz otso,
erruki gabe engañatzen dauz
gazte, agure ta atso.

4/ Anaien ona ikustearren
ez dau nekerik artuko,
lanean baiño azpi-janetan
geiago da nekatuko;
artu-kontuan aurrenengoa,
emon-kontua geroko,
arro apala beti izango da
erriaren kalterako.

(1973, Azaroa)

AMARI BIOTZEZ

- 1/ Larogei ta amairu
urte dituzula,
zortzi seme-alaben
euskaldun arbola;
zugandik artu dogu
euskaldun odola,
zuri eskerrak, ama,
euskaldun garala.

- 2/ Zu izan zara beti
nere pozen jabe,
zugandik urruntzean
biotzak naigabe;
obe da izatea
eskale edo pobre,
bizi izatekotan
amarikan gabe.

- 3/ Beti izan zaitugu
sendiaren lema,
etxeko batasuna,
poza eta broma;
zenbat aldiz baretu
asarrezko tema;
zugandik urruntzian
dakit zer dan ama.

4/ Sarritan jarri nozu
samiñak kendurik,
zure irriparriaz
biotza pozturik;
naiz-ta baldin banego
urrez gañezturik,
zure babesik gabe
ez daukat bizirik.


(1973)

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. *R. Artola*: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: Gabon, Au ostatubal, Anton Kaiku. (*Aitua*).
3. *F. Apalategi*: Euskal mutillak armetan, I. (*Aitua*).
4. *Pepe Artola*: Ustez laguna detan. (*Aitua*).
5. *P. M. Urruzuno*: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. *T. Alzaga*: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. *R. Azkarate*: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. *A. Apaolaza*: Patxiko Txerren. (*Aitua*).
9. *B. Iraola*: Oroitzak.
10. Errege eguneko bertso sayoa (1962). (*Aitua*).
11. *P. Larzabal*: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. *Bilintx*: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. *M. Izeta*: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. *P. Larzabal*: Iru ziren. (*Aitua*).
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I. (*Aitua*).
16. *A. M.^a Zabala*: Gabon gau bat.
17. *A. M.^a Labayen*: Malentxo alargunl (*Aitua*).
- 18-19. *A. Zavala*: Txirrita. (*Aitua*).
20. *F. Goñi*: Lurdesko gertaerak.
21. *P. Larzabal*: Herriko bozak.
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962). (*Aitua*).
23. Aizkolariak. (*Aitua*).
24. *F. Imaz*: Bertso guziak. (*Aitua*).
25. *A. P. Iturriaga*: Jolasak.
26. *A. M.^a Zabala*, *A. Larraitz*, *Mir*: Periyaren zalapartak.
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak. (*Aitua*).
28. *B. A. Mogel*: Ipui onak.
29. *T. Alzaga*: Burruntziya.
30. *G. Anduaga*: Egunsentiko txoria.
31. *M. Soroa*: Baratzan.
32. *M. Elicegui*, *A. Zavala*: Pello Errotaren bizitza.

33. *M. Elicegui, A. Zavala*: Pello Errotak jarritako bertsoak.
34. *P. Larzabal*: Senpere-n gertatua.
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: Festara.
37. *A. Cardaberaz*: Euskeraren berri onak.
38. *S. Salaverria*: Neronek tirako nizkin (*Aitua*).
39. *Bertsolariak*: Amar urteko bertso-paperak. (*Aitua*).
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: Lardasketa. (*Aitua*).
42. *Uztapide*: Noizbait. (*Aitua*).
43. *Bertsolari-txapelketa (1-I-1965)*. (*Aitua*).
44. *P. Larzabal*: Hilla esposatu.
- 45-46. *J. M. Satrustegui*: Bordel bertsolaria. (*Aitua*).
47. *P. M. Urruzuno*: Iru ziri. (*Aitua*).
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: Teatro zaarra. (*Aitua*).
- 49-50. *A. Zavala*: Pello Errotaren itzala.
51. *P. M. Urruzuno*: Ur-zale baten ipuiak (*Aitua*).
- 52-53. *G. Anduaga*: Bertso-bilduma.
54. *A. Zavala*: Fernando Amezketarra bertsolaria. (*Aitua*).
55. *Basarri*: Laugarren txinparta.
56. *A. Zavala*: Udarregi bertsolaria.
- 57-58. *C. Beobide*: Asis'ko Lorea.
59. *A. Zavala*: Axentxio Txanka bertsolaria.
60. *A. Zavala*: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari. (*Aitua*).
61. *A. Zavala*: Gaztelu bertsolaria.
62. *A. Zavala*: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria.
- 63-64. *A. Zavala*: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak.
65. *J. M. Satrustegui*: Luzaide'ko kantiak. (*Aitua*).
66. *A. Zavala*: Iru bertsolari. (*Aitua*).
67. *Bertsolari-txapelketa (11-VI-1967)*. (*Aitua*).
- 68-69-70. *A. Zavala*: Alzo'ko Imaz bertsolaria.
- 71-72. *A. Iturriaga*: Ipuiak.
73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari.
- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak.
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak.
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak. (*Aitua*).
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsolaria.
82. *A. Zavala*: Juan Maria Zubizarreta bertsolaria.
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak.
84. *M. Matxain*: Uste gabeen.
85. *Xalbador*: Ezin bertzean. (*Aitua*).

- 86-87. A. Zavala: F. Iturzaeta bertsolaria.
- 88-89-90. A. Zavala: Xenpelar bertsolaria.
91. A. Zavala: Txapel bertsolaria.
92. I. Alkain — A. Zavala: Alkain aita-semeak.
93. A. Zavala: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak.
94. A. Zavala: Atano ta Estrada bertsolariak.
- 95-96. A. Zavala: Azkoitia'ko zenbait bertsolari.
97. A. Zavala: Bidasoa aldeko bost bertsolari.
- 98-99. Inozentzio Olea: Goierriko lorak.
100. Manuel Lasarte: Bertso-mordoxka. (Aitua).
- 101-102. A. Zavala: Txirritaren bertsoak. I. (Aitua).
- 103-104. A. Zavala: Txirritaren bertsoak. II.
105. Jose Inazio Etxeberria: Mendi-gañetik.
106. A. Zavala: Pastor Izuela. — Ezkioko ta Segurako itxuak.
107. A. Zavala: Zepai bertsolaria. (Aitua).
108. Mattin: Ahal dena.
- 109-110. P. Lafitte: Mañex Etchamendy bertsularia.
111. Bertsolariak: Xenpelar-saria, 1972.
112. Basarri: Sortu zaizkidanak.
113. P. M. Urruzuno: Sasiletrau baten ziria.
114. A. Zavala: Kaskazuri bertsolaria.
115. A. Zavala: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak.
116. A. Zavala: Oiartzungo bost bertsolari.
- 117-118. Balendin Enbeita: Nere apurrak.



AUSPOA
LIBURUTEGIA

IMPRESO EN ESPAÑA